

2025

1. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	35

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	32
2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (I)	41
2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (II)	42

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioak produktuen arabera	17
Esportazioen helmuga	18
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	24
Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-urria)	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Kreditu eta gordailuak.....	33
Ekonomia aurreikuspenak.....	36
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2025eko otsaila)	38
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2025eko martxoa)	39
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiru hilekoka (2025eko martxoa).....	40

LABURPENA

EAEko ekonomia %2,1 hazi zen 2024ko laugarren hiruhilekoan urte arteko tasan. Horri esker, urte osoko batez besteko aldakuntza tasa %2,2 izan zen, 2023koa baino puntu erdi txikiagoa, baina igoera oraindik oso esanguratsua da eta hurbilago dago egoera normal batetik, hau da, pandemiak eta haren ondoren jarduera berriro irekitzeak eragin zituzten alterazioetatik urrun, alegia. Aipatu beharreko ezaugarria da hazkundea sendoa izan dela, nabarmen gaintitzen baitu euroaren eremu osoak lortutakoa (%0,9), egonkorra, aldakuntza tasak ia berdinak izan baitira azken hiru hiruhilekoetan, eta orekatua, kontsumo pribatuaren, publikoaren eta kapital eraketa gordinaren bilakaera paraleloari esker.

Eskaintzaren ikuspegitik, adierazi behar da EAEko industriak Europako beste herrialde batzuetan hautematen diren ahulezia berberak erakusten dituela, sektore garrantzitsuen etorkizunari buruzko ziurgabetasun handiaren, gatazka geopolitikoaren ondoren sortu den polarizazioaren, energia kostu handien eta ekonomia garrantzitsuetan protekzionismo handiagoa izateko mehatxuaren ondorioz. EAEko manufakturen kasuan, bilakaera goitik behera joan da, lehen sei hilekoan %1,0tik hurbil baina iritsi gabe, eta laugarren hiruhilekoan balio erantsiaren igoera ia hutsala izan zen (%0,1). Hala eta guztiz ere, 2024ko urteko batez bestekoa (%0,6) aurreko urtean erregistratutakoa (%0,2) baino handiagoa izan zen.

Kontrako norabidean, eraikuntzak erritmoa bizkortzeko joera erakutsi zuen urtearen azken zatian, aldi horretan urte arteko %2,2 hazi baitzen, urte osoko batez besteko %1,6aren gainetik. Kostuen igoera nabarmen moteldu da urtean zehar, eta horrek sektorea suspertzen lagundu du. Alde batetik, lehengaien kostuak merkatu egin ziren iazko azken hilabeteetan, eta eskulanarenak, berriz, aurreko urtean baino gehiago garestitu ziren. Eskura dagoen informazio koiunturalak adierazten du ingeniariak zibilak oso bilakaera hedakorra izan zuela, eta eraikuntzak, ordea, profil lauagoa.

Zerbitzuak izan ziren berriro EAEko ekonomiaren hazkundearen oinarria. 2024 osoan, bere balio erantsia %2,6 handitu zen, urtean zehar aldaketa handirik erakutsi gabe. Hazkunde hori sektorea osatzen duten hiru jarduera multzoetan oinarritu zen. Urtearen hasieran, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen taldeak portaera ahulagoa izan zuen, baina urteko bigarren erdian bizkortu egin zen, laugarren hiruhilekoko %2,6raino. Bestalde, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak indar handia izan zuten urtearen zati handi batean, baina erritmoa lasaitu zuten azken zatian (%2,4). Azkenik, gainerako zerbitzuek urte osoan zehar urte arteko aldakuntza garrantzitsuak izan zituzten eta %2,9 hazi ziren bai laugarren hiruhilekoan bai urte osoan. Adierazi behar da laugarren hiruhilekoan hiru zerbitzu taldeen arteko erritmoaren aldea puntu erdikoa baino ez zela izan, eta, beraz, urtean zehar konbergentzia gertatu dela.

Eskariari dagokionez, kontu ekonomikoek adierazten dute ekonomiaren hazkundera, bereziki, barne eskariaren sendotasunari zor zaiola; aldiz, kanpo saldoak hamarren bat kendu zion BPGaren hazkunderari urte osoan, eta hiru hamarren laugarren hiruhilekoan, kopuru nahiko apalak direla. Urtearen amaieran, kanpo merkataritzak galga izan zuen, kanpora (atzerri eta gainerako autonomia erkidegoetara) bidalitako ondasun eta zerbitzuen esportazioak %0,3 murriztu baitziren termino errealean, eta inportazioak, berriz, %0,2 baino ez ziren handitu.

Barne eskariaren osagaiak antzeko erritmoetan hazi ziren, EAEko ekonomiari oreka irudia emanez. Horrela, urteko batez bestekoan, familien kontsumoa %2,4 handitu zen, kontsumo publikoa %2,3 eta inbertsioa, azkenik, %2,1. Hiru kasuetan, tasak 2023koak baino handiagoak izan ziren. Beraz, nahiz eta ekonomia 2024an 2023an baino puntu erdi gutxiago hazi zen, barne eskaria orduan baino sendoagoa izan zen, baina kanpo saldoak ez zuen ekarpenik egin iaz. Laugarren hiruhilekoan, hiru ataletako berdintasun hori mantendu egin zen eta aldakuntza tasak honakoak izan ziren, hurrenez hurren: %2,5, %2,3 eta %2,3. Deigarria da familien kontsumoak hartu duen intentsitatea, BPGaren pixka bat gainetik hazi baita, enpleguaren martxa onean, interes tasen murrizketan eta inflazioaren moteltzean oinarrituta. Inbertsioaren gorakada interes tasen jaitsierak ekarri duen kostuen murrizketaren ondorioa ere bada, nahiz eta inguruan ziurgabetasun handia dagoen.

2024an, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,8 areagotu zen, 2023ko tasa berdinduz. Horrek 17.000 enplegu garbi baino gehiagoko saldoa utzi du, 987.666 lanpostu guztira, eta errekorra ezarri dute serie historikoan, 2008an jasotako datuaren gainetik. Hautematen da enpleguaren sorrerak apaltze txikia izan duela urtean zehar, lehen hiruhilekoko %2,0tik laugarreneko %1,6ra igarota. 2025eko lehen hilabeteetarako eskuragarri dagoen informazioak adierazten du enplegu garbia sortzen jarraitzen dela.

Prezioek beherantz egiten jarraitzen dute. Hain zuzen ere, BPGaren deflatorea 2023an %4,1 igotzetik 2024an %2,8 handitzera igaro zen. Bestalde, KPIa puntu erdi jaitsi zen urteko batez bestekoan, %3,1era iritsi arte. Azken hilabeteetan, %3,3ra igo da elektrizitatearen prezioa garestitu delako, BEZak %21eko tasa berreskuratu duelako. Hala ere, azpiko inflazioa (%2,4) indize orokorraren azpitik dago argi eta garbi.

Koiunturako informazio berrienari eta testuinguruko hipotesien eguneratzeari esker, 2025erako eta 2026rako agertoki makroekonomiko berri bat kalkulatu ahal izan da, eta, horren arabera, EAEko BPGa %2,1 haziko da aurtengo eta %1,8, berriz, datorren urtean, joan den abenduan aurreikusitakoa baino hamarren bat gehiago. Era berean, hamarren bat gorantz berrikusi da enpleguarentzat aurtengo espero den hazkundera: %1,5 lanaldi osoko lanpostuetan eta %1,4 pertsona landunen kopuruan. Langabezia tasa %7,0ra jaitsiko da aurtengo.


EKONOMIAREN INGURUNEA

lazko azken hiruhilekoan 2024 osoan zehar ikusitako joerei eutsi zitzairen. Jarduera globalaren hazkundeak indartsu jarraitu zuen, eta, urteko balantzean, urte hasieran uste baino bilakaera hobea erakutsi zuen, baina, beste behin ere, desberdintasun nabarmena hauteman zen sektoreen eta eskualdeen artean. Inflazioak moteltzen jarraitu zuen, batez ere azpikoak, eta diru politikak, berriz, bere bide orriarekin jarraitu zuen, eta horrek interes tasen beherapen berriak eta finantza baldintzak erlaxatzea ekarri zuen. Hala ere, laugarren hiruhilekoko ekitaldirik nabarmenena Donald Trumpen garaipena izan zen, merkatuak astindu eta inflazio itxaropenak eta inbertitzaileen artean hazkunde ekonomiko globalaren bilakaerari buruzko zalantzak handitu baitzituen.


Munduko ekonomia. BPGa (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Beste hiruhileko batez, herrialdeen arteko aldeak nabarmenak izan ziren. AEBetan, BPGa intentsitate handi xamarrean hedatu zen, Txinan BPGaren gehikuntzak aurreikuspenak gainditu zituen, eta jardueraren hazkundeak apala izaten jarraitu zuen eurogunean.

Zehatzago adierazita, Txina %5,4 hazi zen 2024ko laugarren hiruhilekoan, hots, 2023ko lehen erditik inoiz jaso duen tasarik handiena, ekonomia zero covid politiketatik suspertzen ari zenetik, alegia. Hazkunde horren arrazoi nagusia kanpoko eskariaren jardun ona izan zen, batez ere esportazioena, %10,0 handitu baitziren, Trumpen gobernuak ezarri nahi dituen muga zergen igoera protekzionistari aurrea hartzeko hainbat herrialdeetan hauteman den ondasun

txinatarrak pilatzeko erabakiari esker. Halaber, barne eskariak Txinako agintariak udatik iragarritako laguntza neurriak baliatu zituen, eta higiezinaren sektoreak ere egonkortze seinaleak erakutsi zituen, hiri nagusietako prezioen jaitsiera motelduta. Laugarren hiruhilekoko errendimendu on horri esker, Txinako gobernuak urte osoan %5,0 hazteko helburua bete ahal izan zuen. Hala ere, Txinako ekonomiak ahultasun fokuak ditu oraindik, bereziki barne kontsumoan eta higiezinaren sektorean. Horri gehitu behar zaio esportazioen bultzadaren balizko murrizketa eta AEBetako merkataritza eta teknologia murrizketak gogortzea, jarduera ekonomikoari eragin diezaioketenak, eta horrek ez du ematen BPGaren hazkundearen gorakada iraunkorra izango denik.

India, berriz, aurreko hiruhilekoaren antzeko erritmoan hazi zen (%6,0, aurreko %6,1aren aldean), eta horrek egonkortzeko joera duela eta, oraingoz, 2023ko laugarren hiruhilekoan hasitako moteltzea amaitu dela adierazten du, orduan BPGa %10,0 inguru hazten ari baitzen. Inbertsioa sendo mantendu zen eta esportazioak %10,4 areagotu ziren, bi urteko gorakadarik handiena. Hala ere, datu on horiek ez ziren nahikoak izan kontsumo pribatuaren dinamismo txikiagoa eta inportazioen uzkurdura konpentsatzeko. Mexikon, urakanek eta grebek eragin negatiboa izan zuten lehen sektorean eta manufacturetan, 25 urtean emaitzarik txarrenak izan baitzituzten, eta BPGaren hazkundera %0,5era mugatu zuten, pandemiak geroztik jaso duen tasarik txikiena. 2025erako aurreikuspenak zalantza betetakoak dira oraindik, eta ekonomia ahulduta dago kontsumoaren eta inbertsio pribatuaren uzkurduraren ondorioz, AEBek Mexikori ezar diezazkioketen muga zergen inguruko ziurgabetasunak eraginda.

Herrialde aurreratuei dagokienez, AEBen sendotasunak, Japoniaren jardun onak eta Espainiaren bizitasunak konpentsatu zuten Frantziaren erritmo galera eta Alemaniaren uzkurdura, eta ELGaren jardura ekonomikoa %1,9 haztea ahalbidetu zuten. Xehetasun handiagoz, AEBetan, hauteskunde hilabeteek ziurgabetasunez betetako giroa ekarri zuten arren, eta, gainera, fenomeno naturalek eta manufakturaen geldialdi desberdinek eragindako disrupzioek inbertsio jardura murriztu zuten arren, BPGa %2,5 handitu zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago soilik. Errenta erreal erabilgarriaren igoeraren ondorioz, kontsumo pribatuak barne eskaria bultzatzen jarraitu zuen, eta hori handitu egin zen, bai ondasunetarako, bai zerbitzuetarako. AEBetako ekonomiaren egoera ona agerikoa da oraindik, baita bere lan merkatuarena ere, non langabezia tasa %4,0ra murriztu zen 2025eko urtarrilean, iazko maiatzetik izandako minimora, hain zuzen.


Japoniak, bestalde, BPGaren %1,2ko hazkundearekin amaitu zuen laugarren hiruhilekoa, hirugarren hiruhilekoko %0,7ko gehikuntza sendotuz eta urteko lehen erdian izandako fase kontraktiboari amaiera emanez. Hazkunde hori kontsumo publikoaren eta inbertsioaren sendotasunean oinarritu zen, batez ere enpresarenean, nabarmen handitu baitziren. Aitzitik, inflazioaren gorakadak, muga zergen mehatxu globalek eta horiek esportazio aurreikuspenetan izan dezaketen ondorioak eragindako ziurgabetasun testuinguruan, mugatu egin zuen kontsumo

pribatuaren hazkundera (%0,6). Aldagai hori eta inportazioak (%0,0) izan ziren makalen garatu ziren BPGaren bi agregatuak.


Euroaren eremuan, laugarren hiruhilekoko jardura ekonomikoa %1,2 hazi zen. Datu horrek aurreko hiruhilekoan izandako gorakada finkatzen du, eta badirudi jardura ekonomikoak itxuraz hobera egin duela. Lan merkatuen erresilientziari eta inflazioaren murrizketari esker hazten jarraitu zuen kontsumoaren ekarpen positiboek, bereziki pribatuak, inbertsioaren uzkurdua (urtebete darama tasa negatiboetan) eta kanpo sektorearen apatia (ekarpen ia neutrala izan zen) konpentsatu zituzten. Europar Batasunean dinamismo gehixeagoz ihardetsi zen dinamika. Zehazki, BPGa %1,4 handitu zen.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta BEA.

Iazko laugarren hiruhilekoko hazkunde dinamikak desberdina izaten jarraitu zuen euroaren eremuko ekonomia nagusien artean. Izan ere, Alemaniak %0,2ko uzkurdua jaso zuen, eta Italiak eta Frantziak, berriz, biek %0,6ko hazkunde tasa moderatua. Aldiz, Espainiak (%3,5) eta Portugalek (%2,8) hedapen oso esanguratsuak eskuratu zituzten, eskualdearen jardura orokorra gorantz bultzatuz.

Zehatzago esanda, enpresen porroten kopuru altuagoak Alemaniako ekonomian izan zuen eragina, eta nabarmentzekoa da Volkswagenen krisia, 87 urtean lehen aldiz hiru lantegi itxia aurreikusten baitu. halaber, esportazioen aurreikuspenak ez dira oso pozgarriak, eta barne eskaria ahuldu egin da, neurri batean kontsumo pribatuaren jaitsieragatik (%0,4) eta enpresen -

konfiantzaren jaitsieragatik. Bereziki kezagarria da inbertsioen uzkurdura, zazpi hiruhilekotan jarraian behera egin baitute. Berrikuntzan eta energia berriztagarrietan egindako inbertsio eskasak Alemania posizio txarrean uzten ari da AEBetako eta Txinako bezalako ekonomien aurrean, eta horrek eragin larria du haren lehiakortasunean.

Frantzian, behin Olinpiar Jokoen eragina diluituta, jarduera ekonomikoak %0,6 bakarrik egin zuen gora, 2020ko laugarren hiruhilekoko uzkurduratik hazkunderik motelena ezarrita. Familien kontsumoak bere horretan jarraitu zuen, baina inbertsioak behera egiten jarraitu zuen, eraikuntzako inbertsioaren beherakadak eraginda. Kontsumo publikoaren eta kanpoko eskariaren ekarpena, azken hori hamarren bat eskasekoa, izan ziren BPGaren hazkundearen erantzule nagusiak.

Italia, berriz, ez da gai izan suspertzeko. Kontsumo pribatua hobetu den arren, hori ez zen nahikoa izan kapital eraketa gordinaren eta esportazioen beherakada konpentsatzeko, urtearen azken txanpan atzera egin baitzuten nabarmen. Ondorioz, Italiako BPGa %0,6 handitu zen, eta tasa horretan gelditu da hirugarren hiruhilekoz jarraian. Espainia, azkenik, euroaren eremuko hazkundearen buru izan zen berriro. Espainiako ekonomia %3,4 hazi zen eta erritmoa hamarren bat areagotu zuen hirugarren hiruhilekoko datuaren aldean. Barne eskaria izan zen hazkundearen eragile nagusia, kontsumo pribatuarekin eta inbertsioarekin, batez ere makinerian eta ekipamendurako ondasunetan, eta gorakada esanguratsua izan zuen. Aitzitik, kanpo sektoreak bi hamarren kendu zizkion BPGaren hazkunderi.

Azkenik, euroaren eremuko lan merkatuak bere jarduera onari eutsi zion, urtarrilean %6,2ko langabezia tasarekin, 2024ko azken hilabeteetako gutxieneko mailaren antzekoa. Europar Batasunean ere langabezia tasa egonkor mantendu zen (%5,8), tasarik baxuena dena erregistroak daudenetik. Datu horiek adierazten dute 2025aren hasieran 12,85 milioi pertsona langabezian zeudela kontinente zaharrean, eta horietatik 10,65 milioi euroaren eremukoak zirela. Izan ere, Espainiak jarraitu zuen langabezia tasa altuena izaten, %10,4ko mailarekin, eta ELGAko kide bakarra izaten jarraitzen du %10etik gorako langabezia tasarekin, erakundeak oro har erregistratutako %4,8aren oso gainetik.

Laburbilduz, 2024ko balantzearen ezaugarria izan zen munduko BPGa %3,3 inguru hazi zela eta batez besteko inflazioa %3,0 izan zela. Horrek, oro har, duela urtebete espero zena baino askoz agertoki hobea islatzen du, organismo nagusiek aurreikusten zuten *lurreratze leun* beldurgarritik aldenduz. 2025era begira, nazioarteko ingurunea oso konplexua da, tentsio komertzial eta geopolitiko handiak elkartzen direlako, eta horrek orain arte aurkeztutako BPGaren hazkunde aurreikuspenen berrikuspen berriak ekarriko ditu.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia %2,1 handitu zen 2024ko laugarren hiruhilekoan, aurreko bi hiruhilekoetan erregistratutakoaren antzeko tasa bat delarik. Hori dela eta, urte osoan %2,2ko hazkunde tasa eskuratu zen, 2023ko datua baino puntu erdi bat gutxiago, urte horretan oraindik ere pandemiaren kontrolerako hartutako neurriak ezabatzeko bultzadari etekina atera baitzion. Eraitza horrek hiru hamarrenetan gainditzen du Ekonomia Zuzendaritzak joan den abenduan egindako aurreikuspena, eta hamarren batean hobetzen du Eustatek urtarrean argitaratutako aurrerapena. Hiruhilekoko analisiak iradokitzen du EAEko ekonomia hazkunde erritmoaren egonkortasuneko fasean sartu dela, %2,0 inguruan. Gaur egungo beste ezaugarri bat hazkundearen intentsitatea da, nabarmen gainditzen baitu euroaren eremuari (%0,9) eta Europar Batasunari (%1,0) dagokiena, Europako lokomotorrek, bereziki Alemaniak, ahultasun nabarmena erakusten duten unean. Espainia da portaera horren salbuespena, %3,2ko ezohiko erritmoan hazi baita, turismoak herrialdean bizi duen une onak eta atzerritarrak lan merkatu oso dinamikoaren aurrean erakartzeak bultzatuta.

ESKAINTZAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024			
			I	II	III	IV
BPG erreala	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1
Nekazaritza eta arrantza	16,0	3,1	6,5	2,8	1,0	2,2
Industria eta energia	1,8	1,0	1,7	1,0	0,8	0,5
- Manufakturen industria	0,2	0,6	0,8	0,9	0,6	0,1
Eraikuntza	2,6	1,6	2,2	1,0	0,9	2,2
Zerbitzuak	3,0	2,6	2,6	2,5	2,5	2,7
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	1,1	1,8	1,2	1,4	2,0	2,6
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,9	2,9	3,0	3,1	3,1	2,4
- Gainontzeko zerbitzuak	5,4	2,9	3,3	2,8	2,5	2,9
Balio erantsi gordina	2,8	2,1	2,4	2,1	2,0	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,7	2,3	2,3	2,3	2,2	2,2

Iturria: Eustat.

EAEko industriak goitik beherako bilakaera profila marraztu zuen 2024an zehar, sektoreak Europako ekonomietan aurre egiten dien zailtasunek oso baldintzatuta, besteak beste, ziurgabetasun politikoa eta merkataritzakoa, energiaren kostu handiak eta Ukrainako gerra hasi zenetik areagotu den polarizazio geopolitikoa aipatu behar dira. Hala, industriako balio erantsia %1,0 hazi zen urte osoan, eta laugarren hiruhilekoan %0,5eko balioa baino ez zuen izan. Zifra horiek are apalagoak dira manufakturen kasuan (%0,6 eta %0,1, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, euroaren eremuari eta Europar Batasunari buruzko datuak negatiboak izan zirela gogoratu behar da.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak						
	2023	2024	2024			
			I	II	III	IV
Industria						
Industria produkzioaren indizea	1,1	-1,0	-0,8	-0,9	-0,9	-1,4
Negozio zifren indizea	-0,4	-5,0	-9,6	-2,1	-6,8	-1,4
Industria giroaren indizea (maila)	-14,9	-8,6	-15,1	-2,9	-2,5	-21,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	0,9	1,2	1,1	0,7	0,6
Eraikuntza						
Eraikuntzaren koiuntura indizea	8,8	2,3	7,0	-2,2	0,1	4,4
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-17,4	-1,0	12,0	-29,0	-0,8	15,7
Etxebizitzen salerosketak	-13,9	13,8	-11,9	-0,9	30,8	48,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,8	0,1	0,1	-0,3	0,2	0,5
Zerbitzuak						
Merkataritza salmenten indizea	0,1	0,1	-0,1	0,3	0,2	0,8
Merkatuko beste zerbitzu batzuen	4,6	1,8	2,2	1,3	0,9	2,7
Negozio zifren indizea	2,9	0,7	-3,3	1,6	1,1	3,2
Hegazkinen bidezko bidaiariak	24,0	5,4	13,9	7,4	0,5	3,2
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,0	3,4	9,2	2,8	1,1	3,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,8	2,2	2,0	1,5	1,4

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

laz industriaren balio erantsiak moteltzeko profila markatu zuen arren, gaur egun suspertze zantzu batzuk hautematen dira, oraindik hasi berriak direnak. Esate baterako, industriaren ekoizpenak urte arteko aldakuntza tasa positiboak izan zituen abenduan (%0,5) eta, bereziki, 2025eko urtarrilean (%1,7), azken datu hori hamahiru hilabeteen izandako altuena izanik.

Halaber, kontuan hartu behar da urtarrilean energiaren ekoizpena, hegakortasun handia izaten duena, nabarmen murriztu zela (-%8,8), bi hilabeteko hazkunde esanguratsuaren ondoren. Beraz, datuaren hobekuntza ekipamendurako ondasunen ekoizpenaren portaera onean (%6,6) eta kontsumoko ondasunenean (%2,3) oinarritu zen, kontsumoko ondasun galkorren bultzadari esker (%5,4). Aitzitik, bitarteko ondasunen eta kontsumo iraunkorreko ondasunen ekoizpena murriztu egin zen.

Sektoreari buruz egiten diren iritzi inkestek iradokitzen dute ez dela igurikimenen okertze gehigarririk gertatzen ari, eta, are gehiago, aurreikuspenetan hobekuntza txiki bat egon daitekeela. Hain zuzen ere, industriako klimaren indizeak -14,1ko balioa izan zuen laugarren hiruhilekoan, eta otsaileko datua, lerro hauek idazterakoan argitaratu zen azkena, -12,5 izan zen. Batez ere ekoizpenaren joeran hobekuntza hautematen da, baina baita saldu gabe metatutako stocketan eta eskarien zorroan ere, nahiz eta kasu honetan hobekuntza marjinala den. Enpleguari buruzko aurreikuspenak askoz hobeak dira urte honen hasieran. Modu osagarrian, Laboral Kutxak enpresei egindako inkestak hobekuntza nabarmena erakusten du bigarren hiruhilekoari begira, 58,0ko balioarekin, hazkunde ekonomikoaren ildoak markatzen duten 50 puntuetatik oso gora.


Eraikuntzaren kasua industriarentzat azaldu denaren kontrakoa izango litzateke, urtea aurreko hiruhilekoetan baino bultzada handiagoarekin amaitu baitzuen. Zehazki, balio erantsia %1,6 handitu zen urte osoan, eta %2,2, berriz, laugarren hiruhilekoan. Sektoreak aurre egiten dien kostuak moteldu egin ziren 2024an, lehengaietan erregistratutako bilakaerari esker, eta langileen kostuek, ordea, erresistentziak erakutsi zituzten berriro eta bizitasun handiz egin zuten gora. Ekoizpenari dagokionez, argitaratutako informazio koiunturalak pentsarazten du ingeniartza zibilaren bultzadak sobera konpentsatu zituela eraikinen ataleko zalantzak, azken hori urte osoan apenas hazi baitzen, etxebizitzaren salmentak oso igoera handiak jaso zituen arren (%13,8).

Zerbitzuak dira, oraindik ere, EAEko ekonomiaren hazkundera bultzatzen duten eragile nagusiak. 2024an, balio erantsia %2,6 handitu zen, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago. Hiruhileko bilakaeraren profila oso egonkorra izan zen, ia aldaketarik gabe hiruhileko batetik bestera. Laugarren hiruhilekoan, hazkundera %2,7koa izan zen. Adierazi behar da urtearen azken zatian sektorea osatzen duten hiru atalen arteko konbergentzia gertatu zela, eta, beraz, dinamikoenaren eta gutxien hedatzen denaren artean puntu erdiko aldea baino ez zela egon. Zehatzago, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen taldea ia gelditu egin zen 2023ko laugarren hiruhilekoan (%0,1), baina indarra hartzen joan da ordutik, urtebete geroago %2,6ko tasa lortu arte. Bestalde, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak %3,0tik gora hazi ziren urtearen zati handi batean, azken txanpan erritmoa moteldu bazuten ere (%2,4). Azkenik, gainerako zerbitzuen balio erantsia %2,9 igo zen, bai urteko batez bestekoan, bai urteko laugarren hiruhilekoan.

Zerbitzuen bilakaera ona jarraipena izaten ari da 2025aren hasieran, dagoeneko argitaratu diren datu koiunturalen arabera. Izan ere, txikizkako merkataritzaren salmentak %3,5 areagotu ziren urte arteko tasan urtarrean, aurreko hilabeteetan baino pixka bat gutxiago. Inflazioa kontrolatu ahala, familiek aurrezkia murriztea eta erosketak handitzea erabaki dutela ematen du. Beste aldetik, turismoari lotutako estatistikek irudi kontrajarriak eskaini dituzte. Hala, hotel establezimenduetako gualdiak, batez beste, %5,6 handitu ziren urtarrean eta otsailean, aurreko urteko datuekin alderatuta. Horiei apartamentu turistikoen (%19,8), landa ostatuen (%46,8) eta aterpetheen (%0,9) urtarreko datu onak gehitu behar zaizkie. Kontrako norabidean, pertsonen aire-trafikoa %0,6 murriztu zen aurtengo lehen bihilekoan.

Ekonomiaren bilakaera positiboa lan merkatura ere iritsi zen, iazko urte osoan %1,8ko hazkundera izan baitzuen, aurreko urteko aldakuntza tasa berdinduz. Igoera horren ondorioz, urtean lanaldi osoko 17.000 lanpostu baliokide baino gehiago sortu ziren. Hiruhileko bilakaerak moteltzeko joera txikia gertatu zela adierazten du hiruhilekoak igaro ahala, lehenengoaren %2,0tik azken bien %1,6ra. Azken hiruhilekoan, lanpostuen guztizkoa milioitik oso gertu kokatu zen eta serie historiko osoko kopururik handiena markatu zuen, 2008ko finantza krisiaren aurretik erregistratu ziren datuen gainetik ere. Enplegu berrik 15.000 lanpostu pasatxo zerbitzu jardueretan sortu ziren, %2,2ko aldakuntza tasarekin. Nekazaritzakoak ez diren beste sektoreek ere hazkundeak izan zituzten urte osoan, baina tasa askoz apalagoekin. Industriaren kasuan, hazkundera %0,9koa izan zen (2.000 enplegu baino pixka bat gutxiago); eraikuntzan, berriaz, hazkundera %0,2koa izan zen (100 enplegu pasatxo).

Enpleguaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza.

Enpleguaren egoera sexuaren arabera lan merkatuko inkesten bidez azter daiteke. Eustatek egindako BJAren arabera, iazko laugarren hiruhilekoan 995.100 pertsona zeuden lanean; horietatik 516.000 gizonak ziren eta gainontzeko 479.100 emakumeak. Aldakuntza tasa %1,6 izan zen guztira, gizonena %1,4 eta emakumeena, berriz, %1,8. Emakumeak gehiago kontzentratzen dira zerbitzuetan, hedapen handieneko sektorea baita. Horri esker, 16 eta 64 urte bitarteko pertsonen okupazio tasa 2023ko laugarren hiruhilekoko %70,2tik %71,0ra igaro zen urtebete bat geroago, eta tasak, hurrenez hurren, %73,7koa izan ziren gizonentzat eta %68,2koa emakumeentzat, bien arteko diferentziala 5,5 puntukoa izan zelarik.

2025ean igaro diren bi hilabeteetan, enpleguaren sorrera erritmo onean mantendu da, baina erritmoa apaltzeko joera txiki batekin. Hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera, urtarileko eta otsaileko batez besteko igoera %1,1 izan zen, 2024ko bigarren seihilekoko datua baino hamarren bat txikiagoa soilik. Enpleguaren hazkundera zertxobait handiagoa da emakumeen artean, bihilekoan afiliazioa %1,2 igo baita, gizonen artean baino (%0,9). Estatistika honetan ikusten da eraikuntzan enpleguak gora egin duela eta industrian mantendu egin dela; zerbitzuetan, berriz, bultzada pixka bat galdu da. Zerbitzuen intentsitate galera hori sektore publikoari lotutako jarduera adarretan nabari da, hala nola osasungintzan eta administrazio publikoan, baina baita sektore pribatuko adarretan ere, eta horien artean aipatu behar dira merkataritza, afiliazioak galtzen hasi baita, ostalaritza eta zerbitzu osagarriak, nahiz eta azken bi horiek oraindik erritmo garrantzitsuan hazten ari diren.

Enplegua handitzeak eragina izaten ari da pertsona gehiago laneratzeko prozesuan. Laugarren hiruhilekoan, BJAren arabera, biztanleria aktiboa %1,5 hazi zen aurreko urtearen aldean. Hau da, ia 16.000 pertsona gehiago zeuden lan egin nahian urtebete lehenago baino. Kopuru horretatik 13.000 pertsona baino gehiago emakumeak ziren. Sortutako enpleguen kopurua eta lan merkatuan sartutako pertsonena antzekoak direnez, ia ez zen aldaketarik egon langabezia zeuden pertsonen kopuruan, laugarren hiruhilekoan 75.600 izan baitziren, eta horietatik 40.000 inguru emakumeak. Bilakaera horiek 2024aren amaieran langabezia tasa %7,1ean uzten dute, urtebete lehenago zegoena baino hamarren bat beherago. Sexu bakoitzari dagozkion tasak %6,5 izan ziren gizonentzat eta %7,7 emakumeentzat. Azpimarratu beharreko beste alderdi bat nazionalen langabezia tasaren (%6,1) eta atzeritarrenaren (%14,9) arteko aldea da.

BPGaren (%2,2) eta enpleguaren (%1,8) konbinazioak adierazten du 2024an lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia lau hamarren ingurukoa izan zela, aurreko urtean lortutakoaren ia erdia eta aldagai horren batez besteko historikoa baino txikiagoa (%1,0). Hiruhilekoen arabera, ez dago alde handirik aldi batetik bestera. Deigarria da, alde batetik, industriaren portaera, irabazi handienak izan ohi dituen sektorea baita, eta 2024an %0,1eko hobekuntza baino ez zuen lortu, eta, bestetik, eraikuntzak, hain zuzen ere, kontrako kasuagatik: historikoki efizientziaren hobekuntza txikia izan ohi du (%0,3), baina 2024an emaitza ona lortu zuen (%1,4).

Barne eta kanpo eskaria

2024 osoan, kanpoko saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena pixka bat negatiboa izan zen. Izan ere, bai esportazio errealak (%0,1) bai inportazio errealak (%0,3) oso modu marjinalen hazi ziren urtean, eta inportazioen kasuan bizitasun pixka bat handiagoa hauteman zen; beraz, ekarpena hamarren bat negatiboa izan zen. Hala ere, urtean zehar izandako bilakaerak adierazten du urtearen bigarren erdian ekarpen negatibo hori lehen erdian egindakoa baino nabarmen handiagoa izan zela. Beraz, ekonomiaren hazkundea, funtsean, barne eskariaren sendotasunean oinarritu zen.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024			
			I	II	III	IV
BPG errealak	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1
Gastua azken kontsumoan	1,7	2,4	2,2	2,3	2,4	2,5
- Familien gastua kontsumoan	1,9	2,4	2,1	2,3	2,4	2,5
- Adminis. gastua kontsumoan	1,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,3
Kapital eraketa gordina	1,8	2,1	2,3	1,7	2,0	2,3
- Ekipamendu ondasunak	3,1	2,3	2,6	1,8	2,2	2,6
- Gainontzeko inbertsioa	1,0	1,9	2,1	1,6	1,9	2,1
Barne eskaria	1,8	2,3	2,2	2,2	2,3	2,4
Esportazioak	1,0	0,1	-3,4	2,1	2,0	-0,3
Inportazioak	-0,2	0,3	-3,5	2,2	2,4	0,2

Iturria: Eustat.

Oro har, barne eskaria osatzen duten bi osagai nagusien arteko oreka mantentzen da, urte osoan eta lau hiruhilekoen zatirik handienean antzeko erritmoan eta %2,0tik zertxobait gorago hazi baitziren. Deigarria da, 2024an EAEko ekonomia aurreko urtean baino puntu erdi bat gutxiago hazi zen arren, barne eskaria aurreko urtean baino erritmo handiagoan garatu zela (%2,3 eta %1,8, hurrenez hurren), 2023an kanpo saldoak ekarpen handia egin zuela agerian utziz, ia puntu batekoa, 2024an errepikatu ez zena.

Azken kontsumoko gastuak bizkortzeko joera arina erakutsi zuen urtean zehar, laugarren hiruhilekoan %2,5eko hazkundea eskuratu arte. Familien kontsumoak eragin zuen goranzko

bilakaera hori, bere hazkunde erritmoa bizkortu baitzuen lehen hiruhilekoko %2,1etik laugarreneko %2,5era, inflazioa moteltzen eta interes tasak murrizten joan ziren heinean. Bereziki, urtearen bigarren erdian, familien kontsumoaren igoera ekonomia osoarena baino handiagoa izan zen, eta inflazio handiko aldian sortu zen zuhurtziagatik aurrezkoa kontsumora bideratzen ari dela iradokitzen du. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoak egonkortasun handia mantendu zuen urte osoan zehar, %2,3ko tasekin azken hiru hiruhilekoetan.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024			
			I	II	III	IV
Kontsumoa						
Azalera eta kate handietako salmentak	0,9	0,7	0,3	-1,1	2,6	1,0
Txikizkako merkataritza indizea	3,2	2,9	1,6	1,1	4,7	4,0
Kontsumo ondasunen ekoizpena	1,1	-0,8	1,3	-2,3	-0,5	-1,6
Kontsumo ondasunen inportazioa	1,0	-4,0	-16,2	-6,3	1,6	7,0
Turismoen matrikulazioa	5,9	5,9	2,7	0,5	15,1	6,9
Inbertsioa						
Ekipa ondasunen ekoizpena	4,3	-1,4	-0,4	-0,9	-1,9	-2,5
Ekipa ondasunen inportazioa	10,5	-0,6	-12,1	2,3	4,2	4,5
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	15,0	0,1	14,5	0,4	1,1	-13,1
Etxebizitza berriak eraikitzeko oniritziak	-17,4	-1,0	12,0	-29,0	-0,8	15,7
Lizitazio ofiziala	-28,3	52,2	20,1	39,1	-16,2	184,5

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordina %2,1 handitu zen 2024an, urteko batez bestekoan, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago. Halaber, bizkortzeko joera erakutsi zuen bigarren hiruhilekotik aurrera, eta %2,3ko urte arteko aldakuntzarekin amaitu zuen urtea. Beraz, nazioarteko ingurunea ziurgabetasunez beterikoa bada ere, EAEko enpresek interes tasen jaitsiera aprobetxatu dute inbertsioko eragiketa berriak abian jartzeko. Osagaien araberako azterketak adierazten du konbergentzia txiki bat gertatu zela ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioaren eta gainerako inbertsioaren artean, azken horrek eraikuntzan egindakoa barnean hartzen baitu. Lehenak hazkundera moteldu zuen 2023arekin alderatuta, eta bigarrenak, ordea, bizkortu. Urteko batez bestekoan, aldakuntza tasak %2,3 izan ziren ekipamendurako ondasunetan eginiko

inbertsioan eta %1,9, berriz, gainerako inbertsioan. Ebatzi gabe geratzen da AEBetako administrazio berriak ezarri nahi dituen muga zergen mehatxuei eman diezaiekeen erantzuna, mehatxu horiek lerro hauek idazteko unean partzialki baino ez baitira zehaztu.

Kanpoko eskariaren analisiak iradokitzen du munduko testuinguruan bizi izandako tentsio horiek eta polarizazio geopolitikoak nazioarteko merkataritza geldiarazi dutela, eta horrek EAEko enpresei ere eragin diela. Hain zuzen ere, kanpora (hots, Estatuko gainerako lurraldeetara eta atzerrira) bidalitako ondasunen eta zerbitzuen esportazioak %0,1 baino ez zen handitu balio errealetan 2024an, eta inportazioak, berriz, %0,3. Unean uneko prezioetan neurtuta hazkunde tasak %1,0 eta %1,1 izan ziren, hurrenez hurren, prezioen igoera txiki bati esker. Guztizko zenbatekoak 69.784 milioi eurokoak izan ziren esportazioen kasuan eta 69.939 milioi eurokoak inportazioen kasuan. Zifra horiek errekorrak izan ziren serie historikoan, nahiz eta aipatu diren aldakuntza tasak nahiko apalak izan.

Eustatek argitaratutako informazioak zehazten du atzerrira esportatutako ondasunek portaera negatiboa izan zuela 2024. urtean (-%5,1), hiru urtez jarraian hazkundeak lortu ondoren. Jaitsiera hori urtearen hasieran eta amaieran gertatu zen. Izan ere, laugarren hiruhilekoan urte arteko aldakuntza tasa -%5,5ekoa izan zen, guztira 7.885 milioi euro balio zuten ondasunak salduta. Bestalde, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioak %7,4 hazi ziren, 6.646 milioi eurora iritsi arte.

Laugarren hiruhilekoan atzerrira bidali ziren ondasunen esportazioen jaitsieraren zati handi bat erregai mineralen salmenten bat-bateko murrizketaren ondorio da, aurreko urteko zenbatekoaren erdira baino gutxiagora mugatu baitzuten esportatutako balioa. Guztira, 331 milioi euro fakturatu ziren, eta 2023ko hiruhileko berean, berriz, 775 milioi. Aitzitik, energiaz bestelako produktuen salmentak portaera laua erakutsi zuen: urte arteko jaitsiera %0,2 baino ez zen izan, eta guztira 7.554 milioi euro esportatu ziren. Hala eta guztiz ere, atal honek zazpi hiruhilekotan jarraian urte arteko tasa negatiboak jaso ditu.

Atal nagusien artean, garraio materialaren esportazioak izan du bilakaerarik kezkagarriena, salmentak %10,7 jaitsi baitziren urte osoan eta %7,6 laugarren hiruhilekoan. Hainbat faktorek baldintzatzen dute automobilgintza, hala nola mugikortasun elektrikorako trantsizioak, Txinaren lehiak eta Europako merkatuen ahuleziak. Produktu kimikoek eta plastikozko eta kautxuzko taldeak ere salmentak murriztu zituzten. Aitzitik, EAEko egitura esportatzailean pisu handiena duten beste bi atalek salmenten hazkunde handiak lortu zituzten. Hala, makineriak %15,6ko urte arteko igoera izan zuen laugarren hiruhilekoan eta %11,6koa urte osoan; metal arruntek eta beren manufaktura, berriz, %10,9 egin zuten gora esportazioetan azken hiruhilekoan, urtearen lehen erdiko emaitza txarrak makillatzeko balio izan zuena.

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024				
			I	II	III	IV	IV
TOTAL	0,1	-5,1	-15,9	2,0	0,7	-5,5	7.884.618
GUZTIRA	-31,0	-1,4	0,3	112,6	23,8	-57,3	330.818
Ez-energetikoak	3,6	-5,4	-16,9	-2,0	-0,7	-0,2	7.553.800
Nekazaritzakoak	2,5	-21,2	-41,1	-15,5	-17,3	-1,2	442.054
Kimikoak	-11,1	-7,1	-10,9	1,9	-2,1	-15,0	197.802
Plastikoak eta kautxua	6,4	-19,9	-19,1	-17,8	-24,9	-18,1	420.145
Papera	-17,2	4,1	-14,2	7,8	26,5	1,3	173.749
Metal arruntak	-13,2	-2,9	-20,1	-3,6	6,7	10,9	1.661.432
Makinak eta aparatuak	8,6	11,6	-1,5	18,1	14,2	15,6	1.856.556
Garraio materiala	18,9	-10,7	-17,8	-8,1	-8,9	-7,6	2.302.786
Gainontzekoak	3,3	-9,5	-16,4	-2,4	0,4	-18,2	499.276

Iturria: Eustat.

Esportazioen helburu geografikoaren arabera azterketak adierazten du salmenten jaitsiera ELGAko herrialde garatuetan kontzentratu zela, hau da, EAEko atzerrirako salmenta gehienak biltzen dituen merkatuan. 2024an, ELGAra zuzendutako esportazioak 26.124 milioi eurokoak izan ziren guztira, 2023an baino %6,4 gutxiago. Hala eta guztiz ere, Euskadik atzerrira bidalitako esportazio guztien %84,4 herrialde garatuetara bideratu ziren. Garatzeko bidean dauden herrialdeek, berriz, 4.843 milioi euroren truke erosi zituzten EAEko produktuak, hots, 2023an baino %2,3 gehiago.

Herrialde garatuen barruan, euroaren eremuak leku nabarmena du, atzerrirako esportazio guztien erdia baino gehiago biltzen baititu. Oro har, 2024. urtea txarra izan zen merkatu horretara bidalitako esportazioetarako, %6,5 gutxitu zirelako, eta laugarren hiruhilekoan jaitsiera hori areagotu egin zen, urte arteko -%8,4raino. Garraio materialak portaera oso negatiboa izan zuen hiruhileko horretan (-%8,2), neurri handi batean automobilgintzaren inguruko ziurgabetasunagatik, baina baita trenbideetako ibilgailuen emaitza txarragatik ere, aurreko urtearen erdia baino gutxiago fakturatu baitzuten. Kontuan izan behar da euroaren eremuko salmenta guztien ia heren bat garraio materialaren atalean sartzen direla, eta horri plastikoaren eta kautxuaren zati handi bat gehitu beharko litzaiokeela, horrek ere emaitza negatiboa lortu baitzuen (-%22,0). Aitzitik, bai makineriak (%7,3), bai metal arruntek eta beren manufakturek (%8,5) hazkunde esanguratsuak lortu zituzten laugarren hiruhilekoan.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	0,1	-5,1	-15,9	2,0	0,7	-5,5	7.884.618
ELGA	1,2	-6,4	-16,2	1,6	-0,6	-8,5	6.506.470
Eurogunea	-3,6	-6,5	-15,2	-1,5	1,0	-8,4	4.028.546
Alemania	2,9	-13,0	-20,2	-15,2	-14,2	-0,7	1.170.438
Frantzia	-2,3	-0,4	-3,1	5,8	7,3	-10,2	1.103.875
Italia	4,9	-1,5	-8,8	19,3	-8,1	-7,9	429.468
Erresuma Batua	2,9	6,0	-15,1	26,7	9,9	6,6	540.242
AEB	20,1	-27,2	-34,3	-8,0	-17,6	-41,4	474.650
ELGAtik kanpokoak	-6,1	2,3	-14,5	4,6	7,6	11,8	1.378.148

Iturria: Eustat.

Frantzia izan zen EAEko produktuen lehen merkatua 2024an, nahiz eta hiruhileko profilak etorkizunari buruzko zalantza batzuk aurkezten dituen. Izan ere, erdiko bi hiruhilekoetan urte arteko hazkunde tasa esanguratsuak lortu ziren, baina laugarren hiruhilekoan %10,2ko jaitsiera erregistratu zen. Euroaren eremurako aipatutako eskema errepikatzen da herrialde horretan. Horrela, garraio materialaren atalak %11,2 murriztu zituen salmentak azken aldi horretan, eta, aldi berean, makineriak (%7,6) eta metal arruntek (%5,2) aldakuntza tasa positiboak izan zituzten. Pisua duten beste produktu talde batzuek jaitsiera handiak izan zituzten, hala nola produktu mineralek %46,1 eta plastikoa eta kautxuak %10,0.

Alemaniak Frantziaren kontrako bidea egin zuen eta hasi baino hobeto amaitu zuen urtea. 2024ko lehen hiru hiruhilekoetan, herrialde horretarako salmenten jaitsierak %10etik gorakoak izan ziren, eta laugarren hiruhilekoan, berriz, jaitsiera %0,7ra mugatu zen, eta aurten susperraldirako atea zabalik utzi du. Garraio materialak (-%3,4) eta metal arruntek (-%5,0) beherakadak izan zituzten aldi horretan, baina ia erabat konpentsatu ziren makinen eta aparatuen salmenten bilakaera onagatik (%17,8).

Italia bat etorri zen euroaren eremuko emaitza orokor txarrekin, eta %7,9 murriztu zituen erosketak Euskadin 2024ko laugarren hiruhilekoan. Garraio materialak (-%18,6) paper erabakigarria izan zuen merkatu horretako azken emaitzan, baina herrialde horretara esportatutako makineriak (-%6,8) ez zuen jaitsiera hori konpentsatzen lagundu. Bai, ordea, metal arruntan eta horien manufakturen salmentak (%20,4).

Euroaren eremutik kanpo, Erresuma Batuko salmentek lortutako datu ona azpimarratu behar da, urte osoan %6,0 eta laugarren hiruhilekoan %6,6 igo baitziren. Merkatu horretan ere, garraio materialaren salmentak urte arteko jaitsiera nabarmena izan zuen (%21,8 laugarren hiruhilekoan), baina guztiz konpentsatuta geratu zen pisua duten beste ataletako datu onekin, hau da, metalak eta horien manufacturekin (%53,1) eta makina eta aparatuekin (%10,9). Azken atal horrek hamasei hiruhileko jarraian egin du gora.

AEBetara bidalitako esportazioak oso baldintzatuta daude produktu mineralen bilakaerarekin, petrolioaren barne hartzen baitute eta denboran zehar gorabehera handiak izaten baitituzte. 2023ko laugarren hiruhilekoan, 237 milioi euroren produktu mineralak esportatu ziren, eta urtebete geroago, berriz, salmenta 24 milioi eurora mugatu zen, hau da, %89,9ko beherakada izan zuen. Horren ondorioz, hiruhilekoko esportazioak %41,4 murriztu ziren. Mineralen jaitsieraren zati bat makinaren igoera bikainarekin konpentsatu zen (%39,5), merkatu horretarako salmentetan pisua hartzen jarraitzen baitu.

Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, EAEko produktuen salmentek emaitza positiboak izan zituzten urte osoan (%2,3) eta, bereziki, laugarren hiruhilekoan (%11,8). Nabarmenezkoa da aldi horretan garraio materialak izandako bultzada handia (%24,3), ez ibilgailu automobilen lortutakoa, bultzada pixka bat galdu baitzuten (-%1,0), baizik eta trenbideetako ibilgailuek lortutako emaitza apartagatik, aurreko urteko datua hirukoiztu baino gehiago egin baitzuten. Beste hiru atal nagusiek ere igoera nabarmenak lortu zituzten aldi horretan, eta, beraz, hobekuntza ez da atal bakar batean kontzentratu.

Txina da azaleratzen ari diren merkatuen artean munduko garrantzitsuenak, baina EAEko enpresek gutxi samar esportatzen dute herrialde horretara. Laugarren hiruhilekoan 174 milioi eurora baino ez zen iritsi, aurreko urteko aldi berean baino %9,2 gutxiago. Horrela, bost hiruhilekotan jarraian eskuratu ziren emaitza onak bertan behera geratu ziren. Garraio materiala eta makinak eta aparatuak dira merkatu hartako salmenten oinarria, eta bi ataletan aldakuntza tasa negatiboak erregistratu ziren aldi horretan (-%19,1 eta -%5,1, hurrenez hurren). Metal arruntek bakarrik handitu zituzten salmentak herrialdean (%2,4).

Inportazioek bizkortzeko joera erakutsi zuten iazko urtearen azken zatian, urteko saldoa positiboa izateko balio izan zuena, apala izan arren (%0,9). Laugarren hiruhilekoan, atzerriko ondasunen erosketak 6.646 milioi eurora iritsi zen, 2023ko aldi berean baino %7,4 gehiago. Igoera hori erregai mineralen inportaziotik (%5,1) zein energiaz bestelako produktuetatik (%8,2) etorri zen. Azken horien artean, nabarmenezkoa da garraio materialaren inportazio handia, %45,9 igo baitzen 282 milioi eurora iritsi arte, hiruhileko batean erregistratutako kopururik handiena. Gainerako ataletan ere urte arteko igoerak jaso ziren hiruhileko horretan.

Eremu geografikoen arabera, laugarren hiruhilekoko inportazioen hazkundea herrialde garatuetan kontzentratu zen, 4.557 milioi euroko produktuak hornitu baitzizkieten EAEko enpresei, aurreko urtean baino %11,6 gehiago. Beste aldetik, garapen bidean dauden herrialdeetatik ekarritako inportazioak %0,6 murriztu ziren. Nabarmentzekoa da AEBetan egindako erosketen igoera handia (%18,0), osagai energetikoagatik, %34,3 igo baitzen, baina kontuan hartu behar da atal horrek portaera oso hegazkorra duela, eta igoera eta jaitsiera nabarmenak izaten dituela hurrenez hurren. Nabarmentzekoa da, halaber, Alemanian eginiko erosketen igoera (%7,7), ibilgailu automobilen ezohiko hazkundearen ondorioz (%87,2). Kontrako noranzkoan, Frantzian egindako erosketek intentsitatea galdu zuten urtearen azken txanpan, eta pixka bat jaitsi ziren (-%0,3).

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-9,2	0,9	-8,7	3,3	2,6	7,4	6.646.223
ELGA	-3,2	-1,9	-9,7	-7,8	1,5	11,6	4.557.335
Eurogunea	0,3	-0,9	-8,3	-3,0	6,4	2,5	2.905.281
Alemania	5,7	1,1	-8,2	-3,9	10,8	7,7	1.033.900
Frantzia	-17,2	0,2	-10,8	1,8	13,3	-0,3	517.343
Italia	-1,1	-1,9	-1,5	-0,5	-9,9	4,4	325.624
Erresuma Batua	-41,5	13,5	-8,5	10,0	58,4	7,0	134.381
AEB	-15,9	-13,5	10,6	-27,5	-38,7	18,0	366.573
ELGAtik kanpokoak	20,0	7,0	-6,3	30,2	5,0	-0,6	2.088.888

Iturria: Eustat.

Esportazioen eta inportazioen zenbatekoak kontuan hartuta, 2024ko laugarren hiruhilekoan 1.238 milioi euroko saldo komertziala lortu zen atzerriarekin, Euskadiren aldekoa. Beste hiruhileko batez, EAEko ekonomiaren mendekotasun energetikoak 1.327 milioi euroko saldo energetiko negatiboa utzi zuen, aurreko aldietakoaren antzekoa. Aitzitik, energiaz bestelako saldoa oso positiboa izan zen eta 2.566 milioi eurora iritsi zen. Ohi bezala, EAEk merkataritza saldo positiboa lortu zuen herrialde garatuekin zituen merkataritza harremanetan (1.949 milioi euro) eta negatiboa garapen bidean dauden herrialdeekin (-711 milioi euro). Herrialdeka, merkataritza saldorik handiena Frantziarekiko trukeetan lortzen da (587 milioi euro). Alemaniarekiko saldoa (137 milioi euro) nahiko txikia izan zen hiruhileko horretan.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Oro har, prezioek hazkundera moteldu zuten 2024an zehar, nahiz eta urtearen azken txanpan gorakada bat hauteman zen adierazle nagusietan. Hala, BPGaren deflatorea 2023an %4,1 haztetik 2024an %2,8 igotzera igaro zen. Halere, apaltzeko prozesua laugarren hiruhilekoan gelditu zen, non deflatorea bi hamarren bizkortu zen, %2,6raino. Urtearen amaierako goranzko bilakaera txiki horretan, kontsumo pribatuaren deflatoreak eta esportazioei eta inportazioei lotutako deflatoreek parte hartu zuten, eta inbertsioarenak, ordea, moteltzen jarraitu zuten.

Kontsumoko prezioek salneurrien moderazio horretan parte hartu zuten 2024 osoan, baina urte amaieran gora egin zuten. Hala, 2023an Euskadiko KPIa %3,6 igo zen, eta iaz, berriz, %3,1. Hala ere, urtean zehar izandako apaltzeak irailean ukitu zuen lurra, hilabete horretan KPIa %1,8an kokatu baitzen, eta, ondoren, inflazioa abenduko %3,6ra eraman zuen bizkortzea hasi zen. 2025ean igarotako hilabeteetan, garestitzea pixka bat leundu dela nabaritzen da, eta aldakuntza tasa %3,3an dago kokatuta.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2023	2024	2024		2025	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	2,5	2,9	3,3	3,3
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,8	3,0	2,4	2,1
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	4,0	4,2	2,2	0,3
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	0,9	1,0	1,2	0,2
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,1	3,4	3,0	1,5
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	0,7	2,5	8,1	1,2
- Landu gabeko elikagaiak (%6,4)	7,3	4,0	2,9	2,0	5,5	0,4
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	-1,5	2,8	10,0	0,9

Iturria: INE.

KPIaren gorakada batez ere KPIaren osagai lurrunkorrenen garestitzeak eragin zuen. Alde batetik, erregaiak garestitu egin ziren nazioarteko merkatuetako petrolioaren prezioaren igoera txikien ondorioz. Hain zuzen ere, Brent motako petrolio gordinak %4tik gorako igoera izan zuen urte hasieran, 2024ko urtarrilean upeleko 73,5 dolar izatetik 2025eko urtarrilean 76,6 dolar izatera igaro baitzen, LPEEko kideen artean arrisku geopolitikoek eta borondatezko ekoizpen

murrizketek gora egin zutelako. Aitzitik, petrolioaren ekoizpenaren mundu mailako hazkunde handiak eta eskariaren hazkundearen moteltzeak konpentsatu zuten prezioen igoera hori geroago. Izan ere, martxoaren amaieran upelaren prezioa 71,1 dolarretan dago. Beste aldetik, elektrizitatearen BEZa %10etik %21era itzuli izana ere azken hilabeteetako KPlaren gorakadaren erantzulea da.

EAEko inflazioak bezala, Europako prezioek ere gora egin dute azken hilabeteetan, zerbitzuen sektoreak moderazioarekiko erresistentziarekin jarraitzen duelako eta energiaren prezioa jaisteari utzi egin diolako. Hori horrela izanda, irailetik aurrera bizi den goranzko joera berretsi da, %1,7koa izan baitzen orduan, azken hiru urteetako mailarik txikiena, 2025eko urtarrilera arte (%2,5), nahiz eta otsailean %2,3ra jaitsi zen. EBZk interes tasa %0,25 gutxitu zuen %2,5era arte, desinflazioko prozesuak aurrera jarraitzen duela iragarritz, baina muga zergen gerrak eragin negatiboa izan dezake prozesu horretan.

EAEko KPIra itzuliz, adierazi behar da azpiko inflazioak %3,0aren inguruko bilakaera egonkorra erakutsi zuela ia 2024 urte osoan zehar, baina 2025eko otsailean adierazle horren igoera %2,4raino moteldu zela, azken lau urteetako daturik onena baita. Moteltze horren gakoa elikaduraren prezioak leuntzean dago, 2024aren hasieran %6,0tik gorako igoera tasak izan baitzituzten, baina aurtengo otsailean urte arteko aldakuntza tasa %2,2ra jaitsi dute. Zerbitzuen prezioek ere bilakaera positiboa izan dute, denbora luzez moderazioarekiko erresistentzia handia erakutsi baitute, baina otsailean zerbitzuek aldakuntza tasa %3,0ra jaitsi zuten, baita indize orokorraren azpitik ere. Azkenik, industriako ondasunek ere azpiko inflazioa kontrolatzen laguntzen dute, otsailean %1,2ko urte arteko tasa erregistratu zutelako.

Gorakada eta beherakada handienak izaten dituzten KPlaren osagaiek osagairik egonkorrenetik eman zuten iruditik oso urrun dagoen beste bat eman zuten. Izan ere, hondar inflazioa %8,1era iritsi zen otsailean, bi urte baino gehiagotan erakutsitako erregistrorik altuenera. Agregatu horren bi osagaien balioak igo egin dira azken hilabeteen, %10,0raino produktu energetikoen kasuan, eta %5,5eraino, berriz, elikagai freskoen kasuan. Aipatu behar da energiaren garestitzea elektrizitate mugatzen dela, aplikatzen zaion BEZaren aldaketa horrengatik, gaur egun %21ekoa, erregaiek ia aldaketarik gabe mantentzen dituztelako duela urtebeteko prezioak. Elikagai freskoen artean, berriz, gora egin dute bai frutek, bai barazkiek, haragiak eta arrainak, produktu horiek guztiek salneurriak garestitu direlako.

Elektrizitatearen BEZaren aldaketaren ondorioz, etxebizitza taldea da une honetako inflazionistena, urte arteko %11,1eko tasarekin. Bestalde, nahiz eta zerbitzuak, oro har, igoera apaltzen ari direlako zantzuak ematen hasi diren, atal batzuetan prezioen igoera handiak daude oraindik. Zehatz-mehatz adierazita, jatetxeen eta hotelen prezioek urte arteko %4,0 egin zuten gora otsailean, aurreko hilabeteetako tasak baino gehiago. Antzeko zerbait gertatzen da beste

ondasun eta zerbitzu batzuk izeneko atalarekin (%4,0), zeinaren egungo tasa 2024ko batez bestekoa baino handiagoa baita, igoerak apaltzeko inolako zantzurik erakutsi gabe.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	3,6	3,1	3,3	3,6	2,5	2,9	3,3
Janariak eta alkohol gabeko edariak	11,1	4,5	5,8	5,3	3,7	3,2	3,2
Edari alkoholodunak eta tabakoa	7,0	4,3	4,3	3,8	4,1	5,2	3,0
Jantziak eta oinetakoak	2,0	1,0	1,4	0,9	1,1	0,8	2,3
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-12,0	3,7	-0,3	4,8	3,5	7,1	11,1
Etxeko hornidura	6,0	1,5	2,3	1,1	1,3	1,3	1,0
Medikuntza	2,3	2,7	2,7	2,9	2,8	2,6	2,1
Garraioa	0,3	0,9	2,2	3,2	-0,8	-0,8	-0,7
Komunikazioak	3,2	0,1	0,5	0,0	-0,2	0,1	2,0
Aisia eta kultura	4,6	2,4	3,3	2,3	1,1	3,1	1,5
Irakaskuntza	1,9	2,3	2,2	2,2	2,2	2,6	2,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	6,2	4,3	5,0	4,5	3,9	3,7	4,0
Besteak	5,4	3,7	4,2	3,4	3,5	3,6	4,0

Iturria: INE.

Aitzitik, KPIa osatzen duten produktu talde batzuk %2,0 ez gainditzeko helburua betetzen ari dira. Kasurik nabarmenena garraioarena da, prezioak pixka bat jaitsi baitira aurreko urtearekin alderatuta (-%0,7). Orobat, etxeko altzariek eta artikuluek ere euspen esanguratsua erakusten dute (%1,0), baita aisialdiko eta kulturako taldeak ere (%1,5). Azkenik, komunikazioak eta osasuna ia bat datoz EBZk ezarritako helburuarekin.

IPRI indizeari dagokionez, bilakaera KPIaren kontrakoa da, hau da, prezioak bi urtez jaitsi ondoren, aurtengo urtarrilean eta otsailean urte arteko aldakuntza tasa positiboa izan zen (%1,0ko hazkundera otsailean). Produktu multzoka, hautematen da guztiek, energiak izan ezik, prezioak igo zituztela aurreko urtearekin alderatuta. Energiaren salneurria %3,9 merkatu zen otsailean, 2023 eta 2024 urteen artean %30 behera egin ondoren, nazioarteko merkatuetan petrolioak eta gas naturalak izan zuten bilakaeraren ondorioz. Nabarmena da kontsumoko ondasunen garestitzea (%3,7), 2024ko igoera erritmoari eusten baitiote. Ekipamendurako

ondasunek %1,9raino apaldu dute garestitzea, eta bitarteko ondasunek, berriz, goranzko bilakaera profila erakusten dute, %2,0ko garestitzearekin.

Hitzarmen kolektiboei dagokienez, EAEk %3,4ko soldata igoerarekin amaitu zuen 2024. urtea, Estatuko igoerarik handienarekin, alegia. Era berean, erregistro hori inflazioaren gainetik kokatu zen, eta, adierazi den bezala, ekitaldian batez beste %3,1eko igoera izan baitzuen. Beraz, langileek erosteko ahalmenaren zati bat berreskuratu zuten. Hala eta guztiz ere, soldata igoera hori murriztuz joan da aurreko urteekin alderatuta, inflazioa pixkanaka apaldu delako eta hitzarmenen portzentaje handi bat KPIari lotuta dagoelako. Azkenik, azpimarratu behar da negozioazio kolektiboa une onean dagoela, ekitaldia itxi denerako 436.652 langilek baitzituzten beren hitzarmenak eguneratuta, hau da, guztizkoaren % 67,7. Ehuneko hori zifra historiko errekorra da.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2022	2023	2024
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,7	1,2	4,1	4,2	3,4
- Urtean zehar sinatutakoak	1,2	1,1	4,1	4,7	3,6
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,7	1,0	3,9	4,3	3,4
- Enpresako hitzarmenak	1,7	1,9	4,7	4,1	3,2

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Kostuen azterketak ere adierazten du 2024an zehar igoerak apaltzeko prozesu bat gertatu zela aurreko urtearekin alderatuta. Langile bakoitzeko kostuen kasuan, bai lan kostuak bai soldata kostuak %2,3 igo ziren urteko batez bestekoan, eta 2023an, berriz, tasa horiek %4,5 eta %3,7 izan ziren, hurrenez hurren. Are deigarriagoa da beste kostu batzuen moteltzea, 2023an %6,9 haztetik 2024an %2,5 haztera igaro baitziren. Lan egindako ordu bakoitzeko kostuak aztertzen direnean, antzeko bilakaera nabaritzen da, eta 2024ko igoerak %2,7 izan ziren lan kostuetarako, %2,6 soldatetarako eta %2,9, azkenik, beste kostuetarako. Langile bakoitzeko eta orduko tasen arteko aldea lanaldiaren aldaketak azaltzen du. Zehazki, hitzartutako orduak eta benetan lan egindako orduak pixka bat murriztu ziren 2024an, eta, hurrenez hurren, 147,8 orduko eta 120 orduko hileko lanaldiak izatera igaro ziren.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2023		2024		
			IV	I	II	III	IV
Lan kostu guztiak langileko	4,5	2,3	2,2	2,2	1,9	3,6	1,8
- Soldata kostua guztira	3,7	2,3	0,7	1,9	2,5	3,7	1,2
- Bestelako kostuak	6,9	2,5	6,8	3,1	0,2	3,3	3,5
Lan kostu guztiak orduko	5,0	2,7	3,6	6,4	-0,8	3,5	1,9
- Soldata kostua guztira	4,2	2,6	2,1	6,1	-0,2	3,6	1,3
- Bestelako kostuak	7,3	2,9	8,3	7,2	-2,5	3,3	3,8
Adostutako lan orduak	0,1	-0,4	0,2	-0,3	-0,3	-0,5	-0,5
Benetan lan egindako orduak	-0,5	-0,3	-1,4	-3,9	2,8	0,1	-0,1

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Zerga itunduen ondoriozko diru bilketak 2024an lortu zuen erregistrorik onena, eta foru aldundiek 18.310 milioi euro eskuratu zituzten guztira, aurreko urtean baino %0,5 gehiago. Hala ere, euskal ogasunak diru sarreraren aurreikuspenak bete gabe geratu ziren, zenbatetsitako 19.000 milioiak baino 690 milioi gutxiago bildu baitzituzten, eta egoera hori ez zen 2016tik gertatzen, 2020tik izan ezik, pandemiak baldintzatutako urtea baitzen.

Urteko diru bilketa aurreikusitakoaren azpitik geratu izanaren arrazoiak mutualisten inpaktua, hidrokarburoen merkataritzako iruzurra eta BEZaren bilketan izandako jaitsiera dira. Milaka mutualisten pentsioaren kobrantzan gaizki aplikatutako atxikipenengatik aldundiek ordaindu behar izan zituzten zenbatekoei dagokienez, zenbateko hori 761 milioi eurokoa izan zen, bilketa osoaren %4 baino gehiago. Era berean, hidrokarburoen iruzurra izan zen eragina eduki zuen beste aparteko elementu bat, bereziki Bizkaian. Legez kanpoko prozedura da, eta konpainia batzuek erregaia saltzeko eragiketak egiten zituzten eta sozietatea disolbatzen zuten BEZaren hiruhilekoko aitorpena aurkeztu aurretik.

Zuzeneko zergapetzearen barruan, bi zerga nagusiek bilakaera desberdina izan zuten. Hala, aurreko aldietan ez bezala, PFEZaren diru bilketa %1,6 jaitsi zen, lehenago ere aipatu den mutualistei egindako itzulketen ondorioz. Datu negatibo hori, neurri batean, lan etekinen

gaineko atxikipenen emaitza positiboek konpentsatu zuten, 2024ko ekitaldian erregistratu zen enplegu sorreratik eratorritakoak.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-urria)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2023	2024	% Ald. 24/23
PFEZ	7.085.533	6.972.672	-1,6
Sozietateen gaineko zerga	1.635.679	1.739.711	6,4
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	179.940	171.107	-4,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	159.013	179.829	13,1
Ondarearen gaineko zerga	176.178	197.469	12,1
Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga	29.738	29.493	-0,8
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	-266	22.728	-
ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA	9.265.815	9.313.009	0,5
BEZ	6.930.344	6.873.547	-0,8
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	168.020	192.187	14,4
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	36.464	39.644	8,7
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	27.254	30.043	10,2
Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga bereziak	1.434.655	1.458.065	1,6
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	10.685	49.338	361,8
Aseguru sarien gaineko zerga	118.237	125.275	6,0
Joko jardueren gaineko zergak	6.607	7.066	6,9
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	4.884	9.327	91,0
Finantza-transakzioen gaineko zerga	74.526	80.522	8,0
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	11.587	13.283	14,6
Zabortegetan hondakinak uztearen gaineko zerga	10.729	15.627	45,7
Iraungitako zergak	2	-307	-
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	8.833.994	8.893.618	0,7
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	112.678	103.402	-8,2
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	18.212.486	18.310.029	0,5

Iturria: Foru aldundiak.

Bien bitartean, sozietateen gaineko zergaren bitartez eskuratutako diru sarrerak %6,4 areagotu ziren. Zehatz-mehatz adierazita, 1.740 milioi euroko zenbatekora iritsi zen, aurreko

ekitaldiarekin alderatuta eskuratu ziren 104 milioi euro gehiagori esker, jarduera ekonomikoaren bilakaera onaren isla.

Zeharkako zergei dagokienez, eta analisisia BEZarekin hasita (-%0,8), zerga horren diru bilketa 56 milioiko txikiagoa izan zen iazko kopuruarekin alderatuta, Euskadin ekitaldian zehar erregistratu zen kontsumoaren moteltzearen ondorioz, eta horri gorago aipatu den hidrokarburoen iruzurra gehitu behar zaio.

Azkenik, Estatuarekiko doikuntzei lotutako zerga bereziek urte arteko aldakuntza tasa positiboak jaso zituzten berriro (%1,6), baina, aurreko aldietan bezala, doikuntzaren aurreko balioa pixka bat negatiboa izan zen. Bilakaera horren erantzule nagusia bere partida nagusia izan zen, hidrokarburoak, 2024an gasolinaren eta gasolioaren batez besteko prezioak 2023arekin alderatuta jaitsi ondoren %2,2 murriztu baitzuten beren bilketa.

Arlo finantzarioa

Donald Trumpek azaroko hauteskundeak irabazi izanak eragina izan zuen merkatuaren sentimenduan, eta susperraldi ekonomikorako itxaropenak zein merkataritzako gerrari buruzko kezkak sortu zituen. Hori horrela izanda, 2024a emaitza positiboekin amaitu zen errenta aldakorrerako, eta dolarra izan zen dibisarik sendoena. Hala ere, tasa subiranoek gorakada nabarmena izan zuten AEBetako inflazio handiagoaren, etorkizun geopolitiko globalaren inguruko ezezagunen eta politika monetario hedakorren iraupenari buruzko ziurgabetasunaren aurrean.

2025a, berriz, kontrastez beteta hasi zen. Alde batetik, banku zentralekin igurikimenean arabera jokatu zuten, eta horrek egonkortasuna ekarri zion merkatuari. Hala eta guztiz ere, beste aktibo batzuek hegazkortasuna erakutsi zuten, hainbat faktoreren ondorioz. Zor subiranoak eta dibisek gorabehera handiak pairatu zituzten, eurogunean eta AEBetan bizi zen desinflazio mailakatuaren eraginez eta Trumpen administrazioaren politika ekonomikoko lehen mugimenduen ondorioz.

Besteak beste, AEBetako gobernu berriak hainbat muga zerga ezarri zituen, Europar Batasunari, Kanadari, Mexikori eta Txinari eragin zizkietenak. Zehazki, Europar Batasunetik eramandako altzairuari eta aluminioari muga zergak ezarri zizkien, eta horrek errepresalia komertzialak eragin zituen. Kanadaren eta Mexikoren kasuan, Trump presidenteak muga zergak ezarri zituen, baina ondoren bertan behera utzi zituen, Mexikoren, AEBen eta Kanadaren artean sinatuta

dagoen itunaren (T-MEC) inguruko negoziazioen ondoren. Txinari dagokionez, merkataritzako gerra bat hasi zen, Txinako produktu sorta zabal baten gaineko muga zergak ezartzean, eta horrek errepresaliak eragin zituen Txinako gobernuaren aldetik. Neurri horiek tentsio komertzial handiak sortu zituzten, harreman ekonomiko globalei eragin zieten eta merkatu finantzarioak astindu zituzten.

Zehatzago, aurtengo lehen hilekoetan, besteak beste, Eurogunean, Erresuma Batuan, Kanadan eta Suedian interes tasa ofizialetan murrizketak izan dira. Zehazki, EBZk urtarrilean eta martxoan erabaki zuen bilera bakoitzean interes tasa ofiziala oinarritzko 25 puntu jaitea, gordailutzeko erraztasunaren tasa %2,5ean kokatu arte. Seigarren beherapena da 2024ko ekainetik, gordailutzeko erraztasunaren interes tasan oinarritzko 150 puntuko murrizketa metatuarekin. Aldiz, AEBetan Erreserba Federalak 2024ko irailean hasitako murrizketa prozesua gelditzea erabaki zuen urtarrilean. Powellek adierazi zuen ez zutela presarik tasak murrizteko, eta nahiago zutela Trumpen neurri ekonomikoen eragina ebaluatu arte itxaron.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2023	2024	2024			2025		
			Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsaila	Mar(**)
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentr.(*)	4,0	3,0	3,25	3,25	3,0	3,0	2,75	2,5
Erreserba Federala	5,25-5,5	4,25-4,5	4,75-5,0	4,5-4,75	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5
Japoniako Bankua	-0,10	0,25	0,25	0,25	0,25	0,5	0,5	0,5
Ingalaterrako Bankua	5,25	4,75	5,0	4,75	4,75	4,75	4,5	4,5
Txinako Banku Popular	3,45	3,10	3,10	3,10	3,10	3,10	3,10	3,10
Brasilgo Banku Zentrala	11,75	12,25	10,75	11,25	12,25	13,25	13,25	13,25
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	97	70	73	70	70	66	69	61
Grezia	105	84	96	84	84	86	85	78
Erresuma Batua	151	221	209	215	221	207	209	188
Italia	168	116	125	118	116	109	108	103
AEB	184	219	190	209	219	208	181	148

(*) Gordailu tasa. (**) Martxoaren 18ko datuak

Iturria: Espainiako Bankua.

Aitzitik, Japoniako banku zentralak bere interes tasa ofizialak %0,5era igo zituen, 2008tik izan duen mailarik altuenera, eta inflazioaren aurreikuspenak gorantz berrikusi zituen. Halaber, tasak igotzen jarraitzeko prest agertu zen, inflazioak azken hamarkadetako ahultasuna modu iraunkorragoan atzean uztea lortuko duelakoan.

Azaleratzen ari diren ekonomiei dagokienez, Latinoamerikan bertako banku zentral gehienek, Brasilgoak izan ezik, beren interes tasa ofizialak murriztu zituzten azken hilabeteetan, baina moneta politiken tonu murriztaileari eutsi zioten. Bestalde, Txinak finantzaketa baldintzak lasaitzen jarraitu zuen, jardueraren moderazioari aurre egiteko hartutako estimulu neurrien parte gisa.

Interes tasa subiranoei dagokienez, hamar urterako bonuen errentagarritasunak abenduan hasitako goranzko joera luzatuz hasi zuen urtea, etorkizunean ziurgabetasun ekonomiko handiagoa egongo zela aurreikusita. Joera hori partzialki irauli zen hilaren erdialdean, espero baino datu makroekonomiko hobeak argitaratu ondoren (besteak beste, inflazioaren beherakada AEBetan), eta, ondoren, berriro handitu zen, Trumpen Administrazioaren erretrorika protekzionista gogortu zenean.

Ondoren, martxoan, euroaren eremuan, gastu publiko handiagoko programak martxan jarriko direlako iragarkiek, esparru fiskalak malgutzareekin batera, bat-batean handitu zuten 10 urterako bonuen errentagarritasuna. Alemaniako bonua izan zen kaltetuenetakoa bat; izan ere, Alemaniako alderdi nagusiek 'zorraren galga' aldatzeko eta 500.000 milioi euroko funts bat sortzeko akordioa lortu ondoren, defentsan eta azpiegiturretan gastua bultzatzeko, haren errentagarritasuna %2,929ra igo zen, 2023ko urritik inoiz izan den interesik handienera.

Alemanien finantzaketa kostuaren gorakadak kezka sortu zuen gainerako herrialdeen zor publikoaren mailak handitu zitezkeelako eta estatuko finantzen gainerako presio gehigarria egon zitezkeelako, eta horrek gainerako bazkide komertzialen bonu subiranoen errentagarritasunek gora egiten lagundu zuen. Espainiako hamar urterako bonuaren kasuan, %3,573ra igo zen interesa. Hala eta guztiz ere, errentagarritasun horien hazkundera biziagoa izan zen hiruhilekoan zehar Alemaniako bonuaren kasuan, eta, beraz, diferentzial subiranoak pixka bat estutu ziren. Eurogunetik kanpo, hamar urterako zor publiko estatubatuarraren errendimendua oinarritzko 20 puntu hazi zen, %4,5etik gora kokatzeraino, eta Erresuma Batuen hamar urterako zor subiranoari dagokiona, berriz, %4,7tik gora.

Errenta aldakorreko merkatuari dagokionez, 2024a ezohiko urtea izan zen burtsa gehienentzat, bereziki AEBetako eta Europako merkatuentzat. Zehazki, S&P-500 indizeak eta Alemaniako Daxek %20tik gorako irabaziak lortu zituzten, eta atzetik datoz Espainiako burtsa (%14,8) eta

Italiakoa (%13,0). Hala ere, salbuespen nabarmenak izan ziren burtsa igoera horietan. Frantzian, ziurgabetasun politikoaren eta luxuaren, automobilgintzaren eta bankuen sektoreen jardun okerraren ondorioz, CAC-40k %2,2ko galerak izan zituen. Brasilen, merkatuak %10,36 egin zuen behera, defizit publiko handiagatik eta errearen balio galeragatik. Mexikoko burtsak ere %13,72ko beherakada izan du, datu ekonomikoek eta Donald Trump Etxe Zurira itzuli izanak eragindako ziurgabetasun handiak eraginda.

Joera hori ez zen mantendu 2025eko lehen hilabeteetan. AEBetako administrazio berriaren politiken inplikazioei buruzko ziurgabetasun handiko testuinguru batean, burtsa indizeek beherakada esanguratsuak pairatu zituzten herrialde hartan. Gainera, adimen artifizialarekin lotura handiena duten balioetan ere eragin negatiboa izan zuen DeepSeek fenomenoak urtarilaren amaieran. Horren guztiaren ondorioz, martxoaren amaieran S&P-500 indizeak %3,5eko galerak izan zituen, eta Dow Jonesek, berriz, %1,7koa. Aitzitik, Europako burtsa indizeek goranzko portaera erakutsi zuten hiruhilekoan zehar. Horrek, besteak beste, honako faktore hauek islatuko lituzke: bankuek teknologikoen aurrean indize horietan duten pisu erlatibo handiagoa, eta Ukrainako gatazka konpontzeko balizko negoziazioen aurrean eta, duela gutxi, Europako defentsa sektoreak aurrera egiteko aukeraren aurrean dauden perspektiba onenak.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2023	2024	2024			2025		
			Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsaila	Mar(**)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,082	1,082	1,090	1,063	1,048	1,035	1,041	1,090
Yena/euro	151,9	163,8	163,2	163,2	161,1	161,9	158,1	162,26
Libera esterlina/euro	0,871	0,847	0,835	0,834	0,828	0,839	0,831	0,840
€ efektibo nomin.(%)	98,2	98,4	98,2	97,5	96,9	96,7	96,3	98,8
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	22,8	14,8	15,5	15,2	14,8	6,7	15,1	13,4
Eurostoxx-50	19,2	10,8	6,7	6,2	10,8	8,6	12,3	11,9
Dow Jones	13,7	12,9	10,8	19,2	12,9	4,7	3,0	-1,7
Nikkei 225	28,2	19,2	16,8	14,0	19,2	-0,7	-6,9	-5,1
Standard & Poors 500	24,2	23,3	19,6	26,5	23,3	2,7	1,2	-3,5

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte. (**) Martxoaren 18ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua eta Expansión.

Dibisen merkatuetan, 2024ko azken txanpan euroak balioa galdu zuen dolarraren aldean. Donald Trumpen garaipenak gorantz bultzatu zuen billete berdea, %6,0 irabazi baitzuen moneta bakarraren aldean. Trumpen administrazioak ezarritako muga zergen eragin inflazionistaren ondorioz AEBetan tasak gutxiago murrizteko igurikimenak dolarra indartu zuen, eta horrek euroarekin parekotasuna lortzeko beldurra sortu zuen. Izan ere, 2025eko urtarrilean euroa 1,0198 dolarretan kotizatzen iritsi zen. Hala ere, minimo horietatik, Europako dibisak balioa irabazi du 1,09 dolarreraino, eta 2024ko azaroko hauteskunderen aurreko kotizazioari heldu dio berriro.

Euroaren gorakada hori hainbat faktoreri egotz dakieke. Lehenik eta behin, ekonomia estatubatuarraren adierazle ekonomikoak, hala nola kontsumoko datuak, kontsumitzaileen konfiantza eta inflazio itxaropenak, hasieran aurreratzen zena baino ahulagoak izan ziren, eta horrek areagotu egin zuen Erreserba Federalak bere erreferentziazko interes tasaren beste murrizketa bat ezartzera behartuta egotearen beldurra, dolarra ahulduz. Bigarrenik, Alemaniako gobernuak erreforma bat iragarri zuen zorraren arauak ezarritako murrizketak ezabatzeko, eta horrek azpiegiturretan eta defentsan gastua handitzea ahalbidetuko dio. Halaber, Errusiaren mehatxuari aurre egiteko Europako Batzordeak proposatutako gastu militarren hazkunde esanguratsuak euroaren eremuko hazkunde ekonomikoa suspertuko duela aurreikusten da, eta horrek moneta komuna indartu du.

Hala, urtea hasi zenetik, euroak %0,1 egin du gora dolarraren aldean, %0,15 yenaren aldean, %0,6 Txinako renminbiaren aldean eta %1,6 libera esterlinaren aldean. Britainia Handiko dibisaren kasuan, Ingalaterrako Bankuak tasetan etorkizunean egingo dituen murrizketen igurikimen gero eta handiagoek, Erresuma Batuan datu ekonomiko okerragoak argitaratzeak eta aurrekontu publikoari buruzko perspektiben inguruko ziurgabetasunak liberari balioa kendu zioten. Mugimendu horien guztien ondorioz, euroaren benetako truke tasa %98,8ra igo zen.

2024an, 12 hilabeterako Euriborrak beheranzko joera nabarmena erakutsi zuen, ekonomia suspertzeko eta inflazioa kontrolatzeko EBZk interes tasak murrizteko hartutako erabakien eraginez. Urtarrilean, hipoteken adierazle nagusia %3,609koa zen, 2023ko abenduko datua baino 0,07 puntu txikiagoa, eta 2024ko abenduan %2,435ekoa izan zen, hau da, 1,174 puntu jaitsi zen urtebetean.

Hala eta guztiz ere, 2025aren hasieran, joera hori bertan behera geratu zen. Inflazioaren datuak ez ziren nahikoak izan inflazioaren arriskuak ezabatzeko, eta Trumpen politiken eragin zalantzarriak, ekonomiaren suspertzea iradokitzen zuten adierazle aurreratu batzuen hobekuntzarekin batera, Euriborra gorantz bultzatu zuten, urtarilaren amaieran %2,52an kokatuz. Otsailean, EBZk bere agendari eutsi izanak eta martxoan tasen murrizketa berriak

egonkortasuna eta lasaitasuna eman zioten hipoteka adierazleari, eta beheranzko bideari ekin dio berriro.


Etorkizunari begira, Euriborraren bilakaera ez da hain argia duela bi hilabete zegoena baino. Beheranzko bidearekin jarraitzea espero bada ere, eta erakunde nagusiek 2025a %2,1 eta %2,2 artean amaitzea aurreikusten badute ere, ez da baztertzen igoera puntual gehiago izatea. Izan ere, EBZren azken bileratik ondoriozta daitekeenez, ziurrenik Europako erakundeak berehalako etenaldia egingo du munduko ziurgabetasunak eragindako jaitziera politikan. Zehazki, Europako produktu etarako muga zergen bilakaeragatik eta Ukrainarako laguntza ekonomiko eta militarren amaieragatik. Erabaki horrek eragin zuzena izango du Euriborraren bilakaeran.

Interes tasen murrizketak, pandemiaren ondoren metatutako aurrezkiak eta etxebizitza erosteko beharrak higiezin merkatuan sartzera bultzatu zituzten EAEko herritarrak, etxebizitzaren erosketara eta, horrekin batera, hipoteka berrien eskaera handituz. 2024ko laugarren hiruhilekoan, 2023ko aldi berean baino %37,3 hipoteka gehiago sinatu ziren. Horren ondorioz, 21.000 hipoteka baino gehiago formalizatu ziren 2024an, 2023an baino 2.000 gehiago.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milak)
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Gainera, eskari gero eta handiagoari erantzuteko salmentan dauden etxebizitzaren eskasia, sektorearen erronka nagusietako bat, presioa egiten ari da merkatuan, eta prezioak igotzen laguntzen ari da. Hori adierazten dute INEren estatistikek, eta formalizatutako hipoteken batez besteko zenbatekoa nabarmen handitu dela erakusten dute. Zehazki, 2024ko azken

hiruhilekoan, batez besteko zenbatekoa %45,5 igo zen 2023ko aldi berarekin alderatuta, eta hipoteken batez besteko prezioa 162.000 eurokoa izan zen. Azkenik, laugarren hiruhilekoan erregistratutako etxebizitzaren gaineko hipoteken %62,9 interes tasa finkokoak izan ziren, %3,3ko hasierako batez besteko tasarekin, urte hasieran aplikatzen zen tasatik hiru hamarrenera. Aitzitik, hipoteken %37,1 tasa aldakorrean eratu ziren, %3,16ko batez besteko tasarekin, urtarrileko erregistroarekin ia aldatu ez dena (%3,24).

Kredituen eskariak behera egin zuen berriz ere 2024ko azken txanpan, Espainiako Bankuak argitaratutako azken datuen arabera. Merkatuko interes tasen murrizketa bankuen mailegu berriei aplikatutako baldintza orokorretan islatu zen; gainera, mailegu horiek emateko irizpideei eutsi zieten, bai enpresen finantzaketaren segmentuan, bai etxebizitzak erosteko familiei emandako kredituaren segmentuan. Aitzitik, kontsumorako eta beste helburu batzuetarako familiei maileguak emateko irizpideak zertxobait gogortu ziren, banketxeek hautemandako arriskuen gorakadaren ondorioz, batez ere kontsumitzaileen kaudimen txikiagoarekin lotutakoak.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro									
	2023	2024	2024					Aldea 2022-II eta 2024-IV artean	
			I	II	III	IV	IV	Milioi €	Tasa
Kredituak	-4,9	-1,7	-3,5	-2,1	-2,9	-1,7	65.335,0	-7.294,0	-10,0
Arlo publikoa	-6,0	-4,2	-3,6	1,0	-9,2	-4,2	8.435,4	-5.520,3	-8,8
Arlo pribatua	-4,8	-1,3	-3,5	-2,6	-1,9	-1,3	56.899,6	-1.773,7	-17,4
Gordailuak	-1,4	4,2	1,1	2,9	5,0	4,2	100.326,3	1.901,9	1,9
Arlo publikoa	1,2	5,3	7,3	11,8	13,8	5,3	10.479,6	1.730,8	19,8
Arlo pribatua	-1,7	4,1	0,4	1,9	3,9	4,1	89.846,7	171,1	0,2
Agerikoak	-8,9	0,7	-8,7	-6,2	-3,5	0,7	74.888,0	-8.129,3	-9,8
Eperakoak	92,3	24,6	111,7	82,7	64,4	24,6	14.958,7	8.300,2	124,7

Iturria: Espainiako Bankua.

Hala eta guztiz ere, ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna gorabehera, EAEko eragileek zorraren zati bat amortizatzea eta aurrezkiak erabiltzea erabaki zuten, beren egoera ekonomikoa ahalik

eta gehien onbideratzeko. Horrek guztiak ekarri zuen kreditu pribatuen kopuru metatua 57.000 milioi eurotik behera egotea (2024an baino %1,3 gutxiago), eta maila hori ez zen 2004tik erregistratzen.

Sektore publikoa ere saiatu zen bere kontuak onbideratzen, eta zorpetzea 8.435 milioi euro pasatxora mugatu zuen. Horren guztiaren ondorioz, mailegu guztien urte arteko aldakuntza tasa %1,7 jaitsi zen eta 65.400 milioi eurotik behera kokatu zen.

Gordailuei dagokienez, EAEko eragileek aurrekaririk gabeko aurrezki mailarekin amaitu zuten 2024a, EAEko bankuetan ezarrita. Guztira, 100.326 milioi euro baino gehiago metatu ziren banku-gordailuetan, bai epe finkoan, bai ordaindutako kontuetan. Datu hori joera aldaketa bat da 2023aren amaieran hautemandako murrizketarekin alderatuta, orduan EAEko familiek diruaren zati bat kendu baitzuten prezioen krisiaren eta diru politika gogortzearen ondorioz. 2024an, inflazioaren hobekuntza mailakatuak, soldata hobekuntzek bultzatutako aurrezki tasen igoerak eta enpleguaren igoerak, banku erakundeak politika aldaketa batekin batera, zeinek beren likidezia handitzeko ordainsari handiagoa eskaintzen hasi baitziren, berriro ere gorantz bultzatu zituzten gordailuak.

Xehetasun handiagoz azalduta, gorakada ageriko eta konturako gordailuetan zein eperako gordailuetan nabaritu zen, familien artean indarra berreskuratzen jarraitzen baitute. Horiek horrela izanda, badirudi kontsolidatuta dagoela eperako gordailuen goranzko bidea, ageriko eta konturako gordailuen kaltetan, horien aurrerapeneko erritmoa moteldu egin baita. Hain zuzen ere, ageriko gordailuak %0,7 hazi ziren, eperako gordailuen igoera neurrigabekoaren aldean (%24,9), eta, oraindik ere, 2008an metatutako kopuruetatik oso urrun dauden arren (44.000 milioi euro inguru, eta 2024 amaieran, berriz, ia 15.000), bi urtean bikoiztu baino gehiago egin dira. Zenbatekoen igoera horretan funtsezkoa izan zen epe finkoko ezarpenen errentagarritasunak etengabe hobetzea.

Hala ere, ez dakigu joera hori 2025ean zehar mantenduko ote den, izan ere, eperako ordainsarien interes tasan etengabeko jariora hauteman da joan den ekainetik, Europako Banku Zentralak tasak jaisteko prozesua hasi zuenetik, alegia. Zehatz-mehatz adierazita, eperako gordailuen ordainsaria %0,6 murriztu da 2024ko uztailetik 2025eko urtarrilera arte (%2,69tik %2,09ra).

Aurreikuspenak

AEBetako gobernu berriak paradigma aldaketa ekar dezake nazioarteko merkataritzan, eta merkataritza salerosketen bolumena murrizteko mehatxua egin du, muga zergen igoera handiekin. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) urtarrilean argitaratutako aurreikuspenek 0,5 puntuko jaitsiera aurreikusten dute 2025ean ekonomia aurreratuen arteko merkataritza bolumenean, eta 0,3 puntukoa, berriz, 2026an, aurreko aurreikuspenekin alderatuta. Duela gutxi, martxoan, ELGak kalkulatu zuen, epe ertainean, trukeen bolumena bi hamarren murriztu daitekeela AEBek ezarritako arantzel puntu bakoitzeko, errepresalia gisa pareko igoera batekin erantzunez gero. Guztira, ekoizpen globala hiru hamarren inguru murriztu daiteke hirugarren urtean, eta prezioen maila batez beste 0,4 puntu gehiago igo daiteke datozen hiru urteetan. Horregatik, ELGak bi hamarren jaitsi du 2025eko munduko hazkundearen aurreikuspena (%3,1), eta hiru hamarren 2026koa (%3,0).

Trumpen lehen agintaldian gertatutakoari erreparatuta, egin diren ikerketen arabera, epe laburrean, lehen merkataritza gerra horren ondorioz, ekonomia estatubatuarrek %31,7 murriztu zituzten munduko gainerako herrialdeetako inportazioak muga zergen eraginpeko produktuetan. Kalkuluen arabera, muga zergaren puntu bakoitzak ehuneko 2,5 puntuko jaitsiera ekarri zuen inportazioetan. Aitzitik, kaltetutako herrialdeek hartu zituzten errepresalia-neurrien ondorioz, AEBek herrialde horietara bidalitako esportazioak %9,9 jaitsi ziren neurrien eraginpeko produktuetan, elastikotasun txikiagoaren ondorioz, puntu batetik gertu dagoelako. halaber, ondorioztatu zen, epe laburrean behintzat, merkataritzako tirabira horrek ez zuela ekarri uzkurdua esanguratsurik ekonomia estatubatuarrean, baizik eta funtsean barne birbanaketa bat ekarri zuela inportatutako ondasunen kontsumitzaileetatik ekoizle nazionaletara.

Aurrekoaren ondorioz, eta hasieran aipatu bezala, ELGak beherantz berrikusi du AEBetako hazkunde aurreikuspena, %2,2raino, eta zifra hori ekonomia aurreratu ia guztien hazkunde tasa baino handiagoa da oraindik ere. Era berean, inflazioaren aurreikuspena zazpi hamarren igo du, %2,8ra arte, eta horrek 2024ko inflazioa gainditzea ekarriko luke (%2,5 izan zen urte horretan). Modu berean, Consensus Forecast panelaren batez bestekoaren arabera, AEBetako ekonomiaren hazkundera %2,0koa da, eta inflazioarena, berriz, %2,9koa. Horrek esan nahi du duela hiru hilabete espero zen prezioen igoera baino bost hamarren handiagoa dela. Erreserba Federalaren proiektzioen arabera, oraingoz inflazioak %2,7 egingo du gora 2025ean eta %2,2 2026an, eta ezkorragoak dira jarduera ekonomikoari dagokionez, 2025ean produkzioaren hazkundera %1,7ra mugatuz.

Bestalde, ELGak aurreikusi duenez, Mexikok eta Kanadak beren jarduera nabarmen aldatuko dute, eta hazkunde tasa 2,5 eta 1,3 puntu beherantz berrikusi dute, hurrenez hurren,

merkataritzaren alorrean AEBekiko mendekotasuna dutelako. Muga zergen aldaketen aurreko ziurgabetasunak eta aurrerapenak 2025eko lehen hiruhilekotik eragin beharko lukete. Oraingoz, urtarrileko kanpo merkataritzaren datuen aurrerapenaren arabera, AEBetan ondasunen inportazioak %24,4 hazi ziren urte arteko terminoetan, eta, beraz, badirudi enpresak iragarritako muga zergen neurriak indarrean sartzeari aurrea hartzen saiatzen ari direla.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2024	2025	2026	2024	2025	2026
Munduko ekonomia	2,7	2,5	2,5	3,8	3,0	2,6
AEB	2,8	2,0	2,0	3,0	2,9	2,6
Kanada	1,5	1,3	1,2	2,4	2,3	2,0
Japonia	0,1	1,2	0,9	2,7	2,8	1,8
Eurogunea	0,9	0,9	1,2	2,4	2,2	1,9
Europar Batasuna	1,1	1,2	1,5	2,8	2,2	2,0
Alemania	-0,2	0,2	1,2	2,3	2,2	2,0
Espainia	3,2	2,5	1,9	2,8	2,4	2,0
Frantzia	1,1	0,7	1,0	2,0	1,4	1,6
Herbehereak	0,9	1,6	1,2	3,3	3,1	2,4
Italia	0,7	0,6	0,9	1,0	1,8	1,7
Erresuma Batua	0,9	0,9	1,2	2,5	3,1	2,4
Asia Pazifikoa	3,8	3,8	3,6	1,6	1,7	1,8
Ekialdeko Europa	3,0	2,5	2,7	14,8	9,8	6,7
Latinoamerika (Venezuela ezik)	2,1	2,2	2,2	14,7	6,3	5,0

Iturria: Consensus Forecasts (2025eko martxoa).

Europar Batasunak muga zergen bidez erantzun beharko dio Trumpen merkataritzako politikari, Munduko Merkataritzaren Antolakundearen (MMA) arauen arabera. Halaber, bigarren txandako ondorioak ere izan ditzake, AEBko gobernuak defizit komertziala murrizteko borrokan murrizketarik handienak ezartzen dizkien produktu txinatarrek Europako merkatuetara ondasunen desbideratzeak eraginda, batez ere altzairuaren kasuan, mundu mailan gehiegizko ekoizpena baitago.

Europako ekonomiak, oro har, ez du suspertzeko zantzu argirik erakusten, nahiz eta Europar Batasuneko ekonomiaren hazkundera gorantz berrikusi den iazko laugarren hiruhilekoan, hiruhileko arteko %0,2raino. EBZren azken aurreikuspenetan, interes tasen murrizketa %2,5era arte babesten baitu, moneta batasunaren arlorako hazkunderaren zenbatespena bi hamarren murriztu da berriro, bai 2025ean (%0,9), bai 2026an (%1,2). Gainera, inflazioaren aurreikuspena beste bi hamarren handitu da, %2,3raino, energiaren garestitzearen eta euroaren balio galeraren ondorioz. AEBetako mugimenduei buruzko ziurgabetasunaren arabera, martxoaren hasieran dolarrak behera egin du berriro euroarekiko, egun gutxi batzuetan 1,04tik 1,08ra igaro baita.

Europako ekonomia nagusien egoera oraindik ez da positiboa, batez ere Alemaniaren kasuan. Aurreikuspenak egiten dituzten erakunde guztiek, Alemaniako gobernua bera barne, 2025erako aurreikuspenak beherantz berrikusi dituzte, eta aurtengo hazkundera apenas positiboa izango dela kalkulatu dute, 2024an jarduera %0,2 jaitsi ondoren. Industriaren ekoizpenaren hazkunderaren aurreikuspenak okerrera egiten jarraitzen du, eta dagoeneko eremu negatiboan dago (-%0,7), Consensus Forecast panelaren batez bestekoaren arabera. Azpimarratzekoa da 2024an Alemaniako industria ekoizpenaren indizea 2018an lortutako maximoa baino %14,6 txikiagoa izan zela. Duela gutxi inbertsioetan 500.000 milioi euroko zerga pakete bat onartzeak, aurrekontuen egonkortasunari buruzko arauak malgutzea dakarrela, bere industriako sektore ahulenetako batzuk suspertzen lagun lezake. 2026an, hazkundera nolabait normalizatzea aurreikusten da (%1,0), baina AEBetara automobilak esportatzeko muga zergen mehatxuak agertoki hori arriskuan jartzen du, energia prezioen bilakaeran inflexio puntu bat gertatzen ez den bitartean.

2024an %3,2 hazi ondoren, Espainiako ekonomiak hazten jarraituko du 2025ean eta 2026an (%2,5 eta %2,1, hurrenez hurren), eta hori urrun dago Europako gainerako ekonomia nagusien bilakaeratik, Ceperederen aurreikuspenen arabera. Hala egingo du, 2024an bezala, barne eskariaren bultzadari esker (%2,9), azken hiru urteetako kanpo eskariaren ekarpen handiak (2,3 puntu 2022an, 1,0 puntu 2023an eta 0,4 puntu 2024an) atzean utzita. Inflazio neurritsuagoak kontsumo pribatua %2,8 handitzea ahalbidetuko du, enpleguaren hazkundera (%1,7) eta soldata errentena 2024koa baino txikiagoa izan arren. Espainiako lan merkatuaren dinamismoa 2025era eta 2026ra hedatuko da, eta espero da biztanleria aktiboa bi urteetan %1,0tik gora handitzea; langabezia tasa, berriz, aurtun %10,8ra jaitsiko da, eta datorren urtean %10,4ra.

Espainiako Bankuak hazkunde baikorragoa aurreikusten du 2025ean (%2,7) eta pixka bat txikiagoa 2026an (%1,9), Espainiako ekonomia bere potentzialaren gainetik hazten ari dela eta ekoizpen arrakala lehengoratuko duela uste baitu. Proiekzioen ekitaldi berrian, bankuak gainbegiratzeko erakundeak inflazioaren estimazioa ere gorantz berrikusi du, lau hamarren (%2,5eraino), energia prezioen etorkizuneko gorabeheren ondorioz, baina azpiko inflazioaren bilakaera positiboagoa espero du (%2,2). Beste erakunde batzuen aurreikuspenak bat datoz

2025erako agertoki positiboa kontuan hartzean, BBVA Researchek aurreikusitako %2,8tik Funcasen azken aurreikuspenen %2,4raino aldatzen diren aurreikuspenekin, eta 2026rako, berriz, intentsitate txikiagoko hazkundera espero da, %2aren ingurukoa.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2025eko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025				2025	2026
		I	II	III	IV		
BPG	3,2	3,1	2,6	2,3	2,1	2,5	2,1
Kontsumo pribatua	2,9	3,1	2,2	2,0	2,1	2,8	2,2
Kontsumo publikoa	4,9	4,0	3,9	2,0	2,0	3,0	2,0
Kapital eraketa gordina	2,3	3,3	3,2	5,3	2,5	3,6	3,3
- Taldeko inbertsioa	2,3	7,0	6,5	7,4	-0,2	5,1	3,1
- Landatutako aktiboen inbertsioa	5,8	4,7	3,8	3,0	2,5	3,5	2,1
- Eraikuntzako inbertsioa	2,6	1,4	1,7	4,6	3,9	2,9	3,3
Barne-eskaria	2,9	3,6	3,3	2,7	2,1	2,9	2,3
Esportazioak	2,9	2,3	2,8	3,0	3,6	2,9	2,4
Inportazioak	2,0	3,9	4,7	4,2	3,8	4,1	3,1

Iturria: Cemprede.

Hipotesi berriek, ziurgabetasun handiari lotuak, interes tasa txikiagoa islatzen dute (hiru hilabeterako Euribor gisa irudikatua) 2026ra arte, duela hiru hilabete aurreikusitakoarekin alderatuta, euroaren eremuko herrialdeetako inflazioa moderatzeagatik. Dolarraren eta euroaren arteko truke tasari buruzko hipotesiek 1,10era arteko igoera aurreikusten dute 2026ko laugarren hiruhilekoan, baina hipotesien agertokirako datuak itxi ondoren, martxoko lehen asteen, AEBko merkataritza politikak bere ekonomiaren sendotasunean dituen ondorioei buruzko zalantza gero eta handiagoek eragin dute dolarra maila horretaraino ahultzea. Hala eta guztiz ere, AEBetako inflazio aurreikuspen berrien ondorioz, handitu egin daiteke FEDek agintzen duen interes tasaren eta EBZk ezartzen duenaren arteko aldea. EAEko ekonomiaren esportazio merkatu nagusiei dagokienez, Espainiako ekonomiaren hazkundera baino ez da berrikusi, eta haren jarduerak gorantz egiten jarraitzen du modu harrigarrian. Inflazioa espero zen mailara arte murrizten amaitu ez denez, Espainiako kontsumo pribatuaren deflatoarea ere gorantz berrikusi da.

EAEko ekonomiaren aurreikuspen berrietan, BPGaren %2,1eko hazkundera aurreikusten da 2025ean eta %1,8koa, berriz, 2026an, hau da, hamarren bat gehiago urte bakoitzean, aurreko aurreikuspenekin alderatuta. Erabilitako hipotesietan izandako aldaketa txikiez gain, gorakadaren funtsezko iturria barne eskari indartsuago baten ikuspegia da (%2,3), batez ere kontsumo pribatuaren hazkunde handiagoagatik. Kontsumo igurikimenean hobekuntza hori hiruhilekoko kontabilitatearen azken berrikuspenaren ondorio da; izan ere, 2024ko lehen hiru hiruhilekoetan, familien kontsumoaren hazkundera hasieran argitaratutakoa baino lau eta bost hamarren handiagoa izan da. Aitzitik, eta eragin positibo horri aurre eginez, kanpo eskariaren ekarpena negatiboa izan zen urteko azken hiruhilekoan, eta hiru hamarren kendu zizkion EAEko ekonomiaren jarduera hazkundeari, aurreikusitakoa baino emaitza negatiboagoa, eta, beraz, EAEko esportazioen hazkundera ia nulua izan da 2024an, eta, horrekin batera, urte honetarako aurreikuspenak murriztu egin dira.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2025eko martxoa)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2025				2025	2026
	I	II	III	IV		
Euriborra (3 hileko)	2,5	2,4	2,4	2,3	2,4	2,2
Euro dolar truke tasa	1,042	1,053	1,064	1,075	1,058	1,104
Espainiako BPGa	3,1	2,6	2,3	2,1	2,5	2,1
ELGaren BPGa	1,7	1,8	1,9	1,9	1,8	1,8
Euroguneko BPGa	1,3	1,4	1,3	1,3	1,3	1,4
Espainiako konts. pribatuaren deflakt.	2,2	2,1	2,9	2,4	2,4	2,3
Espainiako ondasunen esport. deflakt.	1,7	0,7	0,8	1,4	1,2	1,9

Iturria: Ceprede eta Europako Banku Zentrala. Hipotesien itxiera data: 2025eko martxoak 7.

Barne eskariaren bultzada funtsezkoa izango da 2025ean EAEko ekonomia %2tik gora hazteko. Euskadin aurtengo hasierako tartean inflazioak gora egin duen arren, Europan prezioei gehiago eusten bazaie, interes tasak murrizten jarraituko da, eta, horrela, kontsumo pribatua %2,3 haziko da. Enpleguaren hazkundera aurreko urtekoa baino txikiagoa izango dela aurreikusten bada ere, errenta erabilgarri agregatuaren igoeran izango duen eragina, neurri batean, soldata presio handiagoak konpentsa dezake, urtearen zatirik handienean %7tik beherako langabezia tasak eta duela gutxiko batez besteko historikoarekin bat datorren itxurazko produktibitatearen hazkundeak eraginda. 2026an, lan merkatuaren igoera ez hain handiak, interes tasek egonkortasun handiagoa lortzearekin batera, kontsumo pribatuaren hazkundera %1,7ra mugatuko du. Aurreikuspenen ekitaldi berri honetan, oraindik ere aurreikusten da kapital

eraketa gordinaren hazkundera (%2,6 2025ean eta %2,5, berriz, 2026an) handiagoa izango dela ekoizpen agregatuaren hazkundera baino, bai ekipamendurako ondasunetan, bai beste aktibo batzuetan (eraikuntzak barne), ingurune instituzionalak eta finantzaketa baldintza onuragarriagoak emanda.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2025eko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2025				2025	2026
	I	II	III	IV		
BPG	1,9	2,1	2,1	2,0	2,1	1,8
Azken kontsumoa	2,3	2,3	2,2	2,0	2,2	1,7
Kontsumo pribatua	2,4	2,4	2,3	2,0	2,3	1,7
Kontsumo publikoa	1,9	2,1	2,0	1,9	2,0	1,7
Kapital eraketa gordina	2,2	2,5	2,8	2,8	2,6	2,5
Barne eskariaren ekarpena	2,3	2,4	2,3	2,1	2,3	1,9
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,1
Lehen arloa	2,4	1,0	0,5	-1,0	0,8	-0,1
Industria eta energia	0,6	1,2	1,0	1,7	1,1	1,6
Eraikuntza	2,4	3,1	3,1	2,4	2,7	2,2
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,5	2,2	2,3	1,7
Balio erantsi gordina	1,9	2,1	2,2	2,0	2,1	1,7
Ekoizkinen gaineko zergak	1,9	1,9	1,7	2,2	1,9	2,3
BPG nominala	4,4	4,4	4,6	4,4	4,5	3,8
BPGaren deflatoea	2,4	2,3	2,4	2,3	2,4	2,0
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,5	1,5	1,4	1,5	1,2
Landunak (BJA)	1,5	1,5	1,4	1,3	1,4	1,0
Langabezia tasa	7,3	6,8	6,8	6,9	7,0	6,7

Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.



Bai hiruhilekoko kontabilitateak enpleguari buruz eskaintzen dituen datuek, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, bai pertsona landunei dagokienez, adierazten dute enpleguaren sorrera moteldu egin dela iazko azken zatitik, eta aurreikuspenen arabera joera horrek bere horretan jarraituko duela agertokian kontuan hartu den denboran zehar. Horrela, 2025ean enpleguaren sorrera %1,5era arte motelduko da lanpostuen terminoetan, eta pertsona okupatuen kopurua, berriz, %1,4 handituko da, hau da, 15.000 lanpostu inguru eta 14.000

pertsona okupatu gehiago. 2026an, enplegua %1,2 handituko da lanpostuen terminoetan (12.000 enplegu gehigarri inguru), eta %1,0 pertsona okupatuei dagokienez (10.000 pertsona baino pixka bat gehiago). Langabezia tasa, batez beste, lau hamarren murriztuko da 2025ean, %7,0ra arte, eta urtean zehar maila horretatik behera mantentzea aurreikusten da, 2026an zehar ere luzatuko dena. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da biztanleria aktibo gero eta zaharrago baten aldaketei lotutako ziurgabetasuna, non migrazioko fluxuek eta erregulazio arloko aldaketek zeregin erabakigarria duten.

2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (I) Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina

Enplegua




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak tarteko puntu batean kokatuta daude, beste erakunde batzuek 2025ean egindako aurreikuspenen barruan. Eguneratze gutxi egin dira aurreko txostenarekin alderatuta, eta berrikuspenak balio maximoak eta minimoak markatzen zituzten bi erakundeetatik datoz. BBVak lau hamarreneneko beheranzko lehen berrikuspena egin zuen urtarrilean, hasierako %2,8ko aurreikuspenarekin alderatuta, eta martxoan hamarren batean gorantz berrikusi badu ere, altuena izaten jarraitzen du (%2,5). Beheko muturrean, Ceperderen aurreikuspena, aurreko hiruhilekoko txikiena, %2,3ra arte eguneratu da. 2026rako, ezagutarazi diren lau aurreikuspen bakarrek aldeak handitu dituzte, eta orain Eusko Jaurlaritzaren %1,8aren eta Ceperdek orain aurreikusten duen %2,5aren artean geratzen dira.

2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (II)
Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2025Aurreikuspen panela 2026



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza (2025eko martxoa), Ceprede (2025eko martxoa), Laboral Kutxa (2024ko abendua), Confebask (2024ko abendua), Euskal Ganberak (2024ko abendua), Hispalink (2024ko abendua), BBVA (2025eko martxoa).